

BELAPEYRE (ATHANASE)

CATECHIMA LABURRA
ETA
JESUS-CHRIST GOURE GINCO
JAUNAREN EÇAGUTCIA,
SALVATU İÇATECO

Edizio Kritikoa
Jean Louis Davantek paratua

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA-EUSKALTZAINDIA
BILBAO 1983

126 6759

**CATECHIMA LABURRA
ETA
JESUS-CHRIST GOURE GINCO
JAUNAREN EÇAGUTCIA, SALVATU İÇATECO**

Colección EUSKARAREN LEKUKOAK-7

BELAPEYRE (ATHANASE)

CATECHIMA LABURRA
ETA
JESUS-CHRIST GOURE GINCO
JAUNAREN EÇAGUTCIA,
SALVATU İÇATECO

7

Edizio Kritikoa
Jean Louis Davantek paratua


REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA-EUSKALTZAINDIA
BILBAO 1983

© REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA-EUSKALTZAINDIA
Ribera, 6 - BILBAO-5

ISBN 84-85479-22-X
Depósito Legal BI: 1315-1983

Imprenta Amado
Mazarredo, 35
BILBAO

BELA-tiarak



BÉLAPEYRE

Eskerrik bizienak zor daitzet hiru andereer, zoinen lan baliosa gabe libürü hau ez baitzen agertüko, eta hurak dira Milagros BIDEAGAIN, (*Urquijo liburutegikoa Donostian*), Maria-Pilar LASARTE ta Maria-Isabel GOIKOETXEA (*Euskaltzaindiko idazkariak Donostian*).

Belapeyre-ren obra fotokopiatü daitade lehen biek Urquijo liburutegian, bestelan ez bainian eskiatüren. Hirugarrenak mekanografiatü dait, hots mekanikaz jo dait fotokopia hori, ez baitzian segür lan tipia: xiberotarrez, ortografa zaharrean eta irakurten oso nekea. Hala nola kasik berdin idatzirik daude c, r eta t letrak ... f eta s ere bai. Paper zaharra gaineala: bazterretako letrak ardüra ezabatürik dütü fotokopian.

Hütsak eta okerrak ere franko nasaiki zonbait aldiz: Pauen inprimatürik da liburia, euskaldün ez ziren ofiziale ta langileez düda gabe.

Oker zonbait xüxentü düüt: düdarik batere gabe hala zirenetarik. Irakurtzearen amiñi bat arintzeko egin düüt, perpausaran erran nahia nahasten edo kinperrez goratzen zielarik.

Beste güziak ützi düüt, hots haboroxeak. Horietan gerta daizte okerrak ez direnak ere, hitzetan kanbio eli bat agitü direlakoan Belapeyre-ren denboratik: hala nola harek «otoitzten» diana, orai gük «otoizten» düügi.

Eskerrak ere Gipuzkoar Diputazioko URQUIJO bibliotekari, Belapeyre-ren liburiaz baliatzena ützi nahi üken bainai. Zenbaki hori Julio de Urquijo jaunak berak han emana zian. Hatsarrean inprimategiko letraz idatzirik da: «JULIO DE URQUIJO, REN LIBURUETARIK BAT».

Eta lehen orrialdearen zolan: «V 43. S L74.» «Ej. incompleto que me dió el Dr. Larrieu a cambio de un Poça.» «B.A. E.I J. de U. 19.»

Ez dela osoa zenbaki hau: egia da. Bainak herroka zonbait dütü ezkaz, bigarren libürüko azken bi orrialdeetan (135 eta 136-garrenetan). Oso osorik non ediren? Ihon ere balinba. Hona zer dion hortaz VINSON jaunak:

«Très rare. - Je n'en connais que dix exemplaires dont deux seuls complets et l'un d'eux en parfait état. Ce dernier, qui avait appartenu à M. Burgaud des Marêts, mais n'avait pas figuré à sa vente, a été porté, en 1874, dans un catalogue de la librairie Maisonneuve, au prix de 300 fr. L'un des neuf autres, en mauvais état et incomplet de vingt-deux feuillets, est entre mes mains; je le dois à l'amitié du regretté Michel Renaud, ancien représentant du peuple, sénateur des Basses-Pyrénées, qui le tenait lui-même d'un ecclésiastique du pays.

«Un amateur du Béarn qui possède un exemplaire de ce livre incomplet des p. 1-32 de la première partie, 101-102, 115-136 de la seconde partie, a fait réimprimer ces p. à Pau, il y a quelques années, aussi exactement que possible, pour compléter son exemplaire. Il a fait tirer cette reproduction à une vingtaine d'exemplaires.»

(Bibliographie de la langue basque, N° 43, pp. 141-144, Baionako euskal era-kustokian).

AITZIN - SOLAZ

Italiako eta Spainako ürre aroen ondotik, ürrentzera doa hamazazpiganren mentea, frantzes literaturan hain aberatsa eta ospetsia. Euskaraz ere, ber heineala hüllantü gabe, ez da txarra izan: Sarako eskolari eta bereziki Axularri esker, literatur hizkintza bilakatü da Euskara, Lapurtar euskalkiaren üngürian. Beste euskalkiez emendatürik, memento hortako «Euskara Batua» hor dëgù: Lapurtar klasikoa, Lapurtar osotua.

Alta, Nafarroan zaikü hasi euskal literatura idatzia: 1545-ean inprimatüzen euskarako lehen liburia, Bernat Detxepare-rena. Horren ützülian, edo kantian phürü, bazen idazle tanda bat, «Garaziko eskola» deit dirokeguna. Ohargarri de ere Nafartarrak zirela ondoko bi jaun handiak, Leizarraga eta Axular, lehena bizitzaz eta obraz, bigarrena sortzez.

Badakigü Nafarroako erregiña Jeanne d'Albret-en manüz ari zela Leizarraga artzain protestanta. Bernat Detxepare-ren bertset eli batetarik, badakigü ere ordian arte mespreziatürik eta baztertürik zagoela euskara, düda gabe Englesa eta Alemana zauden bezalaxe: latia baitzen Erdi Aroan hizkintza ofiziala eta noblea.

Baina horik, Berpizkunte aroan ofizial bühürtü ziren, beren Estatü edo Erresumari lotürik, engles eta aleman popüliak nazione bilakatzen hasi zirelarik.

Badüriüdi holako zerbait gertatü beharra zaiola euskarari ere Nafarroako Erresuman. Bainabidakigü Estatü hori nola zatitü eta desegin zaikien barneilik eta kanpotik.

Geroztik Erresumen eta Biltzarren aldetik, mesprezio eta zapalkuntzaz besterik ez dü ezagütü gure hizkuntzak, bai Nafarroan, bai probintzietan, hala

iparrean nola hegoan: Gernikako Juntetan ere debetatürik zagoen, paper zaharrak hor dütüğü jakile. Gogoan edükitzekoa da ere Lapurdiko Biltzarrak Joanes Etxeberri Sarakoaren «Gomendiozko Gutuna»-ri egin zaion kasia, 18 garren mentean.

Behar ere, batarzün eta erakunde ofizial güzietarik kanpo phürü, euskara lantü zien zonbaitek Lapurdin, ordian Terres-Neuves-eko Arraintzükari esker hein bat aberatsa zen Donibane-Lohitzuneko xokoan eta bereziki Sarako herrian. Denbora hartan, üda güziko arraintzüra bazoatzan Lapurtar gazteak milaka (zazpi miletarano gisala) eta bedakak Lapurdin haien ordez egiten zütieng Xiberotar gazteek.

Eta Ziberoan? Hor dütüğü, hamazazpi-garren mentean, Arnaut OIHENART mauletar abokatia eta Juan TARTAS sohütarra, Arüeko erretora. Lehenak Lapurtarrez dü idatzi, ziberotar herexa zonbaitekin prefosta. Bigarrenak nahastekatüren dütü ziberotarra, baxe-nabartarra eta Lapurtarra, berak «Ontsa hiltzeko bidea» libüriaren hastapenean dion bezala.

Idatzi izan da amikütarrez erauntsi ziala Tartas-ek, Arüeko erretor zelakoan. Bainan bi häts badaude ikuspegi hortan. Lehena: Arüen ez da amikütarrez egiten, baina ziberotarrez, amikütar nàbardüra eta kozü ttipiñi zonbaitekin (haka nola «bazü» eta «etzü» aditz formak: baina horik Barkoxen eta Eskulan ere derabilzkie).

Bigarren usie okerra: amikütarra ez da ziberotar eta baxe-nabartarraren nahasteka bat, baina bien arteko zerbait, bere nàbardüra oso zehatz eta orijinallekiko. Ziberotarraren egite handia dü hiztegian, perpausetan eta fonetikan: «ü» delakoa badü amikütarra ere, eta ziberotarrak baino haboro. Adibidez, ziberotarrez diogülarik «gü» eta «gure», amikütarrez dioie «gü» eta «güre», lojika ederrenaz gaineala. Bainan baxe-nabartarrak dütü akzanta (azentua) eta aditzaren formak, «zizte», «badüte» eta abar ... Hor ez da tronpatzerik.

Aldiz frankotan ziberotarra de Tartas-en aditza, beren osoan idazten dütilalarik adibidez «zirade» bezalako formak, gaur oraino Basabüruko xaharek erabilten dütien bezala.

Hots, bat nago Ibon SARASOLA-k bere «Literaturan» idazten dianarenkin: «Tartasen euskara Zuberoko euskalkian oinarritzen da, baina lapurtar klasikoaren influentziak ez zaizkio falta.» Bainan diot: baxe-nabartarrarenak ere ez zaitzola eskaz, berak aitortzen dian bezala.

Azkenean xiberotar hütseala heltzen gira. 1676-an agertzen da latizko izenbüü edo titre batekin «Pronus singulis diebus dominicis», igantetako predikien sorta bat, de Maytie Oloroeko apezküpü mauletarra hontürik. Bainan libürü ttipia da, egin aipatüko dügünaren alteam.

ZERTARAKO KATEXIMA HAU PUBLIKA?

Hona Athanase de BELAPEYRE mauletar apezaren «CATECHIMA LABURRA eta Jesus-Christ gure ginco jaunaren eçagutcia, salvatu içate-co», Pauen agertü zena 1696-an.

Zertako katexima bat püblikatzen dü Euskaltzaindiak? Ez uste izan jente honak, Elizaren lekia hartü nahi gügüla fedearen zaintzeo. Ez! Euskararen zaintza da gure lana, artalde hon bat zaintzen den bezala, bakean haz eta emenda dadin.

Hortako dütüğü eüskal klasiko eli bat püblikatzen «Euskararen leku koak» izeneko sailean, horien eüskara ederra txesta, goza eta gure gogoaren korpitz egin dezagün, gure obren odol eta aragi bühürtüz. Hor badükegү orok zer jan eta edan: ikasle, erakasle, eüskalzale, denek badükegү zer ikas.

Historiazaleentzat ere badate non alha, hamazazpi garren menteko katolizisma ikertütz. Katolizisma eta protestantisma ere bai: zeren ikusiko dügү, protestant seme baitzen Belapeyre, zer lekü üken zien Ziberoan horren familiak eta protestantek.

Hots, ez da katexima baten hedatzea gure xedea. Hala balitz, bietan tronpa gintake, zankoa sekülako nekezietan sartütz. Zeren alde batetik, ez dü gaurko kateximaren egite handirik Belapeyre-renak (*salbü, prefosta, ber Jin-koa diala ber Ekizak*). Bestetik eüskararen zerbütxiak güütü biltzen Euskaltzainak, ez erreljioneak, ezi orotarik bagira barne hortan, apez eta laiko, ateo eta fededün. Arren, erran bezala: eüskararen zaintza da püblikatze honen helbüria.

ZER GATIK ORTOGRAFA XAHARREAN?

Belapeyre-ren lana bere ortografa zaharrean ützi dügү. Zer gatik? Azken mente horietako lehen agerraldia baitü, egin dügү hoherena zateala bere harthan üztea. Gaineala, pentsatzeko da geroztik herotsez aldatü diratekeala Belapeyre-k derabiltzan letra batzü, bereziki «O» zonbait. Eiki, hiru letra erabilten zütian, algarretarik oso hüllan direnak: U, OU eta O:

- U: gaurko ü-rentzat derabila beti (*ezurra, gezurra/ = ezürra, gezürra*). Beraz hor ez da kanbiorik.
- OU: gaurko u-rentzat (*ourthe = urte*). Bain aurr *«itxüra»* dioguna, *«itchoura»* idazten dü. Kasü beraz...
- O: bi gisetara erabilten dü:

- gaur «o» hartzen dien hitzetan: *hor, hobe, gorri, ogi...*
- gaur «u» hartzen dien hitz eli batetan : *bolhar, hona, nola* (*bular, huna, nula*). Kasü *hor ere*: *üdürü lüke hitz eli batetan ja «u» fonemala kanbiatü dela «o» fonema, bereziki «n» kontsonaren aitzinean: gaur lekü hortan beti «u» diogü: adibidez «hun», «zoriun», «zunbait», eta abar... Salbüespen bat badügü halere: Ziberoko lekü hanitxetan «gizun» erraiten balin bada ere, beste eli batetan «gizon» derragü, hala nola *Altzürükün eta Urrüstoin*.*

«O» batzuen «U»-tara bühörtzea, badüridi Occitan hizkuntzaren arartez horra zaiküla. Eiki gure aizoan ordütik agitü da holako kanbio bat. ⁽¹⁾ *Eta badakigü Ziberoan eta ziberotar euskalkian zer itzala üken dian hizkuntza ofiziala günian mintzaje hedati horrek, trubadurren hizkuntza zela gaineala.*

Baina gaur occitan idazkeran, berriz «O» letrala bühörtzen die «U» berri hori, hizkuntzaren jeiniak eta ortografa batü baten lojikak manatzen daien bezala düda gabe. ⁽²⁾

Beraz, ez düt arrazorik ikusten beste hainbesteren ez egiteko ziberotar ortografa berrian, euskararen batarzünari bürüz garamatzalarik phüriü: hala nola uste düt «O» ezari behar dügüla, beste gisaz egiteko arrazo seriosik ez dügün aldi oroz:

- *gizon* (eta ez: *gizun*), zonbait
- *hona* (*ona*), eta ez «*huna*», *hau nahas baitirekegü gaineala «hüna»* (*muina*) eta «*huna*» (*hiza*) hitzakin
- *zorion, ontsa* (*Baxe-Nabarren ere «untsa» erraiten da, eta «ontsa» idazten, «on», «ongi», «ondo», «hobe» bezala, erroak errespetatüz*).
- *nola, hola* (*baina «hula» ere badügü, beste nabardüra batekin*), *nor, ihor, noiz, non, nora, norat...*

Bestelan, «u» eta «ü»-z eginik den oihana da xiberotar izkiribia, janik hain nekez ari den irakurlearen herratzeko eta harritzeko doi. Eta geroago eta haboro hurruntzen gira euskara idatzitik. Beste Eüzkaldünek ezin gintiroie irakur ez entelega. Beraz, libürü bat ez dirogü inprima: Eüskal-Herri osoan ez bada zabaltzen, ez dü bere büria pakatüren, ez ordaitüren.

Baina hor janik sartzen gira gaurko ortografan. Ikusten dügu auzia ez dügüla hainen düda gabea. Hots, arrazo bat haboro Belapeyre-ren ortografa xaharraren üzteko bere hartan, den mendrenik ere arra hunki gabe. Eneaz berriz ariko nitzaizie sarrixe.

⁽¹⁾ *La langue occitane, par Pierre Bec, PUF, que-sais-je? N.^o 1059, 1973 P. 89-*

⁽²⁾ *Idem, P. 109-*

ZIBEROTARRA ETA EUSKARA BATUA

Euskara Batuaren auzia da, naski, euskalzaleen artean dügün mingarriena. Alta Euskaltzaindiak süstengatü nahi dütü bai Euskara Batua, bai euskalki bereziak eta Ziberoan, prefosta, ziberokarra.

Euskara Batua, Euskara idatzia da, eta güziz literarioa. Ez da orano egunik, egiten ari da, eta hortan parte hartzen dü ziberotarrak ere. Zertaz beldürütü behar günüke? Ikusten dügü, adibidez, Euskal-Herri osoan ber euskaran idatzirik dela meza, ber-ber hitzkin. Baino bakoitzak lekian leküko gisa ahozkatzen dü. Hor ez da historia mikorik ere izan!

Euskara Batuak ez dü nahi euskalkien lekia hartü. Baino euskalkiek hütsik üzten dien lekia dü bete gei, bereziki administracionean eta ünibertsitatean, bai eta goi maileko literaturan. Adibidez, pastoral bat ziberotarrez idazten da. Baino matematika, fisika eta bilogiako libüriak, Euskara Batuan dira idazten; roman eta eleberriak ere bai...

Artetik derradan Junes Casenave-Harigile-ren pastoralak Batuan ere ezaririk izan baitira, bigarrenean ja ikusten ahal da ez dela uste lizatekean bezalako lifierentziarik. Hori bera erraiten zaitan Baxe-Nabartar batek Orreagako emanaldian. Ihardetsi naion: ontsa idatzirik delarik eta behar bezala ützülirik, ez düzü ez halako leizerik. Euskara ontsa ez dakienen artean dütützü nekeziak.

Prefosta, Euskara mintzatzen den lekietan, leküko euskalkia erakatsi behar da lehenik. Gero, hein bat gora joan ordüko-bigarren mailean ja-uste düt Batua ere ikasi behar dela.

Auzia ez da xiberotarraren eta batuaren artean: euskararen eta frantzesaren artean da. Ziberotarra ez die hilien ez batuak, ez «manexak». Frantzesak dü ehaiten. Arren, algarrekin salbatü behar die xiberotarrak eta batuak, algarren beharra baitie. Beste biderik ez düt ikusten.

Hitz bat «manexa» dela erraiteko, ez gitian sobera zotüka. Ziberotar idazle xaharrak ikertzen balin badüfügү, ikusiren dügü orai «manexak» üdürü zaizkün hitz hanitx erabilten ziela gure aitzinekoek. Hala nola Etxahun Barkokex arruntian idazten zian «beldür», «gertatü» eta holako zonbat. Etxahun Irurik ere üsü erabili dütü orai arte euskalki oroenak ziren hitzak, egün arroz-tüxeak balin badüfügү ere.

Haboro diot: xiberotarraren ontsa jakiteko, beste euskalkiak ere ikertü behar güntüke, gure aitzinekoek egiten zien bezala. Holaxe hobeki ikus giniro, alde batetik zer dügün haietarik berex, eta bestetik zertan giren haitekilan bat.

Aita Lhande-k gipuzkera bazakian xiberotarra baino hobeki, Guillaume Eppherre zena Lapurtarrez ere oso trebe zen, Lafont erakasleak euskalkiak oro bazatakian, edo hüllan, nahiz euskara Larrainen ikasi zian lehenik. Eta no-

laz ahatz gintiro Oihenart eta Tartas, xiberotar lehen idazleak, ipar aldeki aüskalkiak ja hain ederki orratü zütienak? Gure denboran, Mirande eta Peillen Xiberotarrak, xiberotarrez bezain trebe dira lapurtarrez, gipuzkeraz eta batuan...

Ez, ez dira algarren etsaiak xiberotarra eta batua. Zeren alde batetik batuaren erroak dira euskalki güziak, eta haietan xiberotarra: hontan ere badü zer har batuak, hala nola mendiko saien eta adardünen izenak, besteetan gal-düixerik direnak, kabale horiekin batean etxeiki baitutie Xiberotar xaharrek: haboroxeak horietarik hartürük dütü «Aranzadi» naturalezako zientzia tal-deak.

Bestetik batuaz baliatü behar dü xiberotarrak, ez dütian hitzak harten hartiz, bereziki hitz berriak, bai eta ezagützen ez dütian hitz xaharrak: hala nola itsas-arrainen izenak, itsas aldeko euskalkietan ikasi behar dütüğü, eta ez gihauk asmatü edo erdarari hartü.

Hola uste düt eta batuaz baliatzen niz aitzin-solaz honen idazteko: xiberotarrez ez dügün hitza, batuari hartü nahiago daiot ezi ez frantzesari, espainolari edo biarnesari. Ez deia xünen? Ala euskaratik gero eta haboro bereziz eta hürrüntüz, erdaren «patois» bühürtü behar dü Ziberoko mintzajeak? Eta laster hil? Ez, bizi bedi, euskararen batarziúnean, bere itxüra berezia zilegi den heinean edükiz.

Lan hau batuan idatz nezakean, eta egoki zatekean hala egin nezan, Ziberoan baino hanitxez haboro beste probintzietan irakurriko den libürü bat bai-tate. Bainan ziberotar idazle ta obra batez ari nizanaz geroz, Ziberotarrek ez zien entelegatüko ez nezan ziberotarrez egin.

Orai esplikatü behar daiet hemen erabilten düdan ortografa.

ORTOGRAFA BERRIAZ

Euskaldün haboroxeak, eta bereziki Ziberotarrak, gure hizhunthan anal-fabetak gira: ez dakigü harten irakurten ez idazten. Alta Euskaldün bakoitzari üdüri zaio hortaz denak badakitzala eta partikülazki ahozkatzen den bezala idazten dela euskaraz.

Baina letra eli bat jaten baitütgü, liferentziak badira jate hortan herri batetik besteala: beraz ezin da hitza ahozkatzen den bezaka idatzi. Etsenplü gisa, «arrastiri» hitza hiru gisatara entzin izan düt Xiberoan: arrasti (ri),

arresti (ri), arristi (ri)... Etsenplü hobe bat, baina idazkeran hartürık, «pastoral» hitza zortzi gisatara idatz daiteke:

*pastoral, pastural
pastoal, pastual,
phastoal, phastual,
phastoral, phastural.*

«s» letra «z» batez ordaikatzen balin badüğü, Xiberoan zonbaitek egiten dien bezala, beste zortzi gisa badürügü. Eta «x» batez ordaikatzen badüğü, beste zortzi gisa. Hots, hogei-ta-lau gisatara idatz daiteke «pastoral» hitza! Ezin sinetsia, egia tristea, baina egia. Norat ari gira, hama-zortzi-mila arimatako xoko ttipiñi hontan, hitz batek 24 ortografa dütialarik!

Ez! Serios izan behar da. Frantzesez idazten düdalarik, Frantzes Akademia-ren ortografa hartzen düt, nahiz ez den estaküria gabea: ikasleer galta, mündüko gaitzena da! Halaber eüskaraz, Euskaltzaindiaren ortografa errespetatzen düt ahal oroz, batuan, lapurtarrez, baxe-nabartar ala ziberotarrez. Nolaz ez? «Ontsa» hitza, Behaskanen «ontsa» idazten eta, Etxarrin «untsa» idatziko düta, bietan bardin ahozkatzen delarik? Arren, arren!

NOLA EGITEN DÜDAN:

1 — Euskal letrak beren euskal herotsarekin hartzen dütüt, adibidez «s», «x» eta «z» nahasi gabe, Xiberoan üssü agitzen den bezala.

2 — Hitzak osorik idatziz, bokalen arteko «r» eztia ahatze gabe (nahiz ez dügün ahozkatzen Xiberotarrek), ürrentzeak bazter üzti gabe: mendian, (eta ez menden), bedaro (eta ez bedau), zirade edo ziradie (ez zide edo zidie), joan (ez jun), arrastiritan (arrats irian)...

Bi baldintza eta kondizione horik betatzen dütü Xiberoko idazle honen eta elizaren ortografak. Har gatik hortarik berezten niz ondoko erregeletan:

3 — Hitzaren erroa errespetatüz, «etxe-a» eta «otso-a» idazten düt beste euskalkietan bezala (nahiz Euskal-Herri güzian «etxia» eta «otsua» den ahozkatzen), hitzaren erroa «etxe» (bat) eta «otso» (bat) delakoz. Baina kasü, ez lizatekeene ustez lekü püblikoetan eta elizan «etxea» eta «otsoa» ahozkatzen hasi behar, üsantxa güzien kontre Baxe-Nabarren hasi diren bezala!

4 — «U» letra «O» letraz ordaikatzen düt, batarzünak eta lojikak eskatzen dien aldiskal, gorago erran bezala, bere haatan üzteko arrazo berezirik ez delarik. Holaz Belapeyre-ren gana üzültzen niz. Occitanaren aldatzeak desegin ziana, Occitanaren bilakaera berriak arra egiten dianaz geroz, batarzünaren eta tradizione Zahar egiaskoaren alde, zer gatik ez hartaz ere balia?

5 — «H»-ren auzia, orotarik famatiiena eta saminena, üdüri zait orotarik aisena dela funtsean. Hor ere Euskaltzaindiaren araudietarik ari niz, salbues-

pen apur eli batekin. Beraz kontsonen ondotik ez düt H-rik idazten, salbü xiberotar hütsak diren hitz zonbaitetan, hala nola: einhe... H gabe desgisatürik barat laiztealako beldürrez, bakant batzuer üzten daiet, oranokoan phürü.

6 — *N-ren gaineko tildea kentzen düt eta haren ordez «i» ezarten aitzinean, beste euskalkietan hala egiten den aldi oroz: Lorraine, gaine... Bain espertiña, erregiña eta holako hitzetan etxekiten düt, hego aldeko euskalkietan bezala, janik «i» bat baitie.*

7 — *Halaber «ll» doblea bakuntzen düt, lehen «i» batez ordaikatüz: oilarra, abantaila... Bain hitzaren hatsarrean delarik, bikunean üzten düt, ezin bada bestelan egin: llabür (nahiz Belapeyre-k «labur» idazten dian)...*

8 — *El-ren ordez AI, beste euskalkiek AU dien aditz formetan: dait (daut), eta ez deit... Hor Belapeyre-ren ürratser jarraikitzen niz. E-ren ordez ere AI: baitie, baihiz... hor ere Belapeyre-ri jarraikiz; bai eta baina, baino (bena, beno), beste euskalkietan bezala.*

9 — *Aditzaren aitzineko «EZ» osorik idazten düt, aditzatik bereziz: ez nüke (enüke), ez diat (eztiat)... beste euskalkietan bezala.*

Hots, euskal ortografa erabilten düt euskalki güzietan, xiberotarra barne, Champagnan eta Normandian frantzes ortografa erabilten dien bezala-bezala.

BELA-TIARRAK

Athanase de Belapeyre apeza, Sohütako erretora, Ziberoko ofiziala eta bikari jeneralra, mauletarra zen, Jacques de BELA famatiaren semea. Hau lege gizona zen, eta protestanta. Hemen amiñi bat aipatü behar düt Béla familiaren historia.

Gratien de Béla, San-Goin-eko laborari baten semea, Sohütako Domekera ezkontzaz jin zen eta hola nobletü. Ziberoko sindik izanik, erregeren prokúradore-ordari zen 1550-ean. Arteitik derradan Biarnoko herrixka bat dela Sangoin, Nabarrenkose ta Oloroen artean, Sohütaren herri aigooa, baina hortarik hein bat hurrün. Etxau eta basa bazter euskaldunak badüütü orano, Biarno bazterreko beste herri eli batek bezala, eta pentsa daite oso euskalduna zela diala lau mente.

Ordüko Ziberotar haboroxeak bezala, katolika zen Gratien de Béla. Mauen zian etxe batetan lüzaz gorderik etxeiki zian Regin, Oloroeko apezküpia, Jeanne d'Albre Nafarroako erregiñaren ihes zabilana.

Haren seme Gérard-ek Mauleko bere hontarzüneta desmasiak jasan züttian 1569-an protestant armadaren ganik, Montgomery-ren manaspenean Zi-

beroaz jabetü zelarik. Geroago protestant egin zen, dela erregeari kausitzeko, dela Catherine de Johanne-rekin egin zian ezkontzaren ondorioz. Honek erregiñaren kargüdün handi bat zian aita, bai Nafarroako gobernan, bai Ziberoan. Gérard bailli eta jüje izentatü zian Nafarroako errege Henri-k 1577-an, orano katolika zelarik gure Ziberotarra.

Erran behar da hastetik bazela protestant zonbait Maulen. Bain Jeanne d'Albret-ek zian haboroenik hedatü erreljione berria, amorioz ez zelarik bor-txaz, eta hobe zen harekin ontsa izatea. Horrela konbertitü zen Ziberoko jente ikasi franko. Leizarraga-ren laguntzaletan baziren Ziberotarrak.

Konbertitü zen bereziki Mauleko jauneria. Lege gizonez eginik zen hau eta Berpizkunte aroko hümanista jakintsü haietarik bazian, bereziki Béla-tiarrok, Ezponda-tiarrak, Maytie-tiarrak eta Arnaut Oihénart (azken biak katolikak ziren har gatik). Algarrekin askazi ziren familia horik eta Mauleko ezagüenak oro.

Denen artetik aipagarria da Béla-tiarrena. Bi seme üken zütian Gérard-ek: Jacques (Maulekoa) eta Isaac (Sohütakoa). Jacques, Ziberotarren delegatü izan zen 1622-an eta erregeren jüje ta bailli 1633-an. Andere katolika batekin ezkontürik, bera protestant egon zen. Eta horren gatik, bere kargiaren betetzena ez zien ützi nahi katolikek, beraz nekez erauntsi zian Lextarreko auzitegian.

Gizon baketsia zen, bai eta ekintzale baino pentsalariagoa. Behin Biarnoko protestant lagünen jazarkünte bat sü piztetik baratu zian salakuntzarik gabe, Arnaud de Maytie Oloroeko apezküpiaren lagungoarekin.

Protestant izana gatik, Xiberotarrek haitatü zien beren ordari bezala, Xiberoaren interesen zaintzeko: Louis XII garrenak Xiberoa Pauko parlamentari lotü nahi baitzian, Béla-k ardietsi zian Bordelekoari etxekirik ütz lezan, Xiberotarrek nahi zien bezala. Horiek orano gogoan zütien erreljione gerletan Biarnoko protestantek egin zaitzen sarraskiak, 1569-an Montgomery kontearen manaspenean eta 1587-an Belzunze-ko kapitain-gaztelüzainaren pean.

Beraz, bere protestangoaren gainetik igaranik, oso ziberotar abertzale agertü zen hor Jacques de Béla jauna.

Idazle jakintsia zen, hizkuntza andana bat bazakitzana (euskara eta gas-koin-biarnesa haurzarotik, latia, frantzes, greka, espanola, italianoa, hebraieraz ere zerbait). Euskal eta gaskoin-biarnes idazleak hanitx ontsa ezagüten zütian, haien obra gütiak ohebürüko zütiala. Latiz ere idazten zian frantzesez baino hobeki. Obra nasaiak ützi düdü, hanizko zoritzarrez galdu dira eta besteak publikatü gabe egon:

—Tablettes direlako enziklopedia: sei libürü, bat galdurik. Horietan berrogei-ta-hamar bat atsotitz, euskaraz-Journal de la révolte de Matalaz.

- Dictionnaire basque: *galdürrik*
- Compendium de grammaire basque: *galdürrik*
- Commentaire sur la Coutume de Soule: *kopia bat Bibliothèque Nationale-an*
- Traité du compte ecclésiastique
- La style pour un jeune avocat
- Le traité de la mémoire locale, *hiruak galdürrik.*

Haren ondokoetarik bat izan zen 18-garren mentean Jean-Philippe de Béla zaldüna. 1745-ean, Frantziako erregearentzat Xiberoan altxatü zian «Volontaires Cantabres» izeneko errejimentia. Guretzat interesgarriago dena, Maulen kolegio baten eraikitzeko bere hontarzünetaik eman ziala, baina damürik. Bestalde idazki eli bat ützi düti:

—Histoire de Pays Basque (Bibliothèque Nationale, Manuscrit N.A.F. 22.06): hor bere arbaso Jacques-en Tablettes-etaz baliatzen da haren denborako gertakariantzat.

—Mémoire aux Etats sur les services rendus au Pays de Soule par la maison de Béla.

—Mémoires militaires du chevalier de Béla. Aitzin-solaz bezala, Jean de Jaurgain-en «Notice sur le chevalier de Béla»-Ducéré, imprimerie Lamagnaire, 9 rue Jacques Laffite, Bayonne-1896.

ATHANASE

Utzül gitian gure egiñeko sujetaren gana, hau baitügü Athanase de Bélapeyre. Sei haurride zütian, haietan Salomon de Belaspect (erregeren bailli zen Maulen, protestant egon zen eta hortakoz persegitiü zien), Philippe de Bélapoey, Jean-Philippe de Béla zaldünaren arbasoa...

Ikusten dügü izenak emendatü zütiela, algarretarik bereztekiko bezala (Bélapeyre, Belaspect, Bélapoey, Bélapériz...). Orai agortürik da Béla-tiarren leinia, gizonen aldetik phürü: arren galdu da haien izena. Berriki zentü da, mutxurdin, andere de Belaspect bat.

Dena dela, katolika egin zen Athanase de Bélapeyre, bai eta apeztü. Teologia ikasi zian Toulouseko Unibertsitatean. Bere amarekin, aitaren konbertitzaiseatü zen thai gabe, baina damürik: protestantisman hilen da Jacques 1667-an, 81 urtetan.

Athanase, lehen kusia zian André de Béla-k, Sohüta Domekeko jaun bezala, herri hartako erretor izentatü zian. Baina haren anai Pierrick beste apez bat izentatü zian ber kargiala, Conget izenekoa: düda gabe Tartas-en «Ontsa

hiltzeko bidea» liburiari Oloroeko apezküpiaren manüz inprimatzeko eskübi-de emanen daion hura bera: «A. DE CONGET, Atarratzeko erretor, eta Züberoa Herriko Bik. Jeneral eta Ofiziala». (Ontsa Hiltzeko Bidea, Jakin, 1975, 8.n orrialdean).

Hau baliatü nahi izan zen Athanase de Bélapeyre gaztaroan protestant izan zelako estaküriaz. Parlamentian xuritü zien ez-da-bada, bai eta Athanase-k auzia irabazi.

Baina, bakearen ezarteko, lau hilabetez izentatü gabe üzten dü apezküpiak.

Conget-ekiko auziaz, ikus dirokezie ondoko «Dokumentü zonbait» haietarik lehena (I).

Bigarren dokumentütik asma dirogü ez ziela beren büria nor nahirentzat edukitzten Bela-tiarrek. Bain Jean de JAURGAIN-ek legezko paper batzüetarik erakusten deraikü San-Goineko laborari etxe batetarik jelkiten zela haien arbaso Gracian edo Gratien, Jacques-en aitaña. Bela-tiarren etorki hori janik aipatürük neraizien. Bain hona orai proba, «Notice sur le chevalier de Béla» delakotik jelkirik (II).

Julen VINSON-ek, bere «Bibliographie de la langue basque» delakoan, LARRIEU barberak emaniko xehetarzün eli bat dakarzkigü, Belapeyre-k üken zütian auzi zonbaitez, zoinek erakusten bailükie, Mauleko medikü historiazale horren arabera, ezinago auzikaria eta borrokarria zela gure jaun bikari jeneralra:

«Belapeyre paraît avoir été l'être le plus processif et le plus batailleur qu'il soit possible d'imaginer.»

Hortaz begista dirozie hiru garren dokumentia (III).

Arnaud-François de MAYTIE apezküpiaren konfiantxa beti eduki zian. Bain hura zentü baitzen 1681-ean, ondokoarekin gaizki jin zen Belapeyre: Mgr de SALETTES-ek kargütik kentü nahi üken zian 1685 edo 86-an. Auzitegira deitü zian Belapeyre-k, eta irabazi ere (hiru garren dokumentia, III).

Ez da harritzeko begietan hartzen badü oroz bakoz apezküpü berriak. Apeza ezin heziz eta ezin baztertz, haren indar handienaren desegitera lehiaztuko da.

Gero Xiberoko ofizialgoa xutik etxekiko dü Belapeyre-k, baina hura hil ondoan kargü hori ezabatuko dü Oloroeko apezküpiak. Azkenekoz, bere kate-ximaren agertzean ere trabatuko dü Belapeyre. Honek bere Testamentian dio, 1693-an, baimena beti ükatü daiola apezküpiak, beren arteko ez-da-badaren ondorioz.

Katexima berri bat agertuko da Pauen 1706-an, Jacques De Maytie kalongeak hontürük: «Catechima Oloroeko diosesaren cerbutchuco» (frantzes-

tik ützülia). Bi katexima hamar urtez, denbora hartako, ber diosesa ttipian, hanixko da, ez? Erran behar da oso libürü ttipia dela bigarren hau, eta ützülpenezkoa.

Bere testamentian Bélapeyre-k aipatzen dütü ere bere Memoriak eta teologian ikasle den lloba Jean de Bélagrace-ri eskatzen daio inprimeraz dietzon izenbürru honekin: «Une histoire et bonnes remarques sur la nation basque et le présent pays de Soule».

Historiazko lan hori, obra gotorra ümen da; baina non ediren? Dena dela, ikusten dügü Athanase de Bélapeyre-k baziala bai abertzale sendimentü, bai idazteko jeinü, Béla-tiar güziek bezala (denek idatzi die güti edo aski), eta bereziki bere aita euskalzale ta hümanistak bezala. Hots, bazian nontik eta dūdarik ez da kültüra hon baten jabe egin zela etxearen bezala ünibertsitatean ere.

MATALAZ ETA BELAPEYRE

Jacques de Bela-k idatzirik bada Matalaz-en historia llabür bat, «Journal de l'insurrection des Basques sous la conduite de Matalas». Pariseko Bibliothèque Nationale delakoan dago. Horren kopia bat prestatü dait Pierre de SOUHY Maulekoak eta fotokopiatü düt. Kronika motz bat da, eskü izkiri-büz, püblikatiü ez dena.

Matalaz bere harat-honatetan jarraikitzen dü 1661-eko üdan eta larrazke-nean. Hala nola ikusten dügü behin Sohüta «Jaurigoyen»-eko hegatza desegin ziala Mitikiltarrak, jauregi hortan protestant ofiziodak emaiten zirelakoz. Eta beste behin Sohütako Domeka (Bela-tiarrena) oküpatu ziala...

Segür ez zen Matalaz-en aldekoa Jacques de Bela (Xiberotar süharra zelarik areta), bereziki protestantak gaizki erabilten zütielakoz haren gizonek (Bütztanobi artzaina gorde behar üken zian de Maytie apezküpiak). Mauleko jaunetarik zen ere gure lege gizona. Eta azkenean Mauletarrek omen zien Matalaz Jentainean arrestatu.

Entzün izan düt Belapeyre-k ziala saldiü. Baina holakorik ez da ihon agertzen. Aldiz Sohütako Bela jaunak Matalaz-en atzamaitean eskia sartü ziala, edo güdükatü ziala phürü gaiza segürtzat emaiten da.

Bestalde Jacques de Bela-k bere egünkarian dio Matalaz entzün ondoan, auziaren ageriak Bordeleko Parlamentiala igorri zütila Lextarreko korteak,

bai eta gibel üken ere, jaun hori berriz entzün behar ziala ofizialaren presen-tzian (hau zen Elizako jüjea, hots Belapeyre). Eta hala egin zen.

Jacques de Bela-k dioskü ere Mauleko elizan ehortzirik izan zela Mata-laz, altare handiaren aitzinean, jaun apezküpiaren amodio ütsü bat zela kausa, «par un amour aveugle de mon dit sieur l'Evêque». Ez ote da pentsatzeko bere apezküpu eta herritar de Maytie-rekin hortan ere akort zela Belapeyre bikari jeneralat?

Dena dela altare aitzinean üdüriz aisa atzeman laite Matalaz-en herexa, besteekin nahastekatzeko lanjerik gabe: büria galdu diana lizateke. Eta ediren laite gaiza handirik desegin gabe, lürrialat ari baita hilerrieta dagon eliza xaharra, lehen Mauleko eliza nausia zena.

HAREN EUSKARA

Ordü lüke kateximan sar gitian. Xiberotar garbian da, euskara xotil, noble ta zainhart batetan trozatürik. Ez dü perpausa lüze, ülün ez ützüli-mitzülirik. Haren arrenküra: erreligioneko egien argi eta garbi erraitea, jente xeheaz on-tsa entelegatürik izateko gisan. Arrenküra hori bereziki agertzen daie apez lagüner, bigarren libüriaren hatsarrean, lau eta bost garren orrialdeetan:

«Hartaco Catechima honez labur eracaxi behar ducié Bestacal, cer mis-terioac hoyetan igaran diren, Predicu lucez beno ihikiago eta hobeki, çoin gen-té chehec ençun beçain sarri ahazten baitutié, ceren bortu arté hoyetan gouré Laborari eta Cabaleçain gachoac lanez akhituric, hen espiritiac hain sortha eta lamputs guerthatcen baitira, Non haboroetan Predicu handiec eliçan lehen lo eraciten baitutié, eciz iratçartcen misterio barnen hartceco. Arren Jondane Paulec Corintaco Populiari cioan beçala, lac vobis potum dedi, non escam, ezne edatera eman dericiet, eta ez iaté borthitz bat. Ciec eré ené Aurhidiac cien ardier egquia gorac goça eraci itcetcié eztiki, labur eta ardura, hoyen ik-hastera eliçala gin eraciz.»

Ontsa entelegatürik izatea, hori dü lehen lehenik eta oroz gainetik xerka-tzen Bélapeyre-k. Ez da horregatik behinere aisezialat lerratzen, arrunktikeria-rik ez dü. Beti elegant eta lerden egoiten da, dantzaria plazaren erditan bez-la... apeza peredikagian bezala.

Oraiko Xiberotar batek aisa entelega diro, berak mintzo dian euskaratik kanbio güti ediren diroke, bereziki adin batetako Basabürütarra. Zer gatik? Zeren Pettarrak baino haboro euskaraz ari dira Basabürükoak, eta euskara garbiagoan. Hitzak hobeki ahozkatzen dütie, ürrentzea jan gabe: hala nola «mendian», «mendiala» (eta ez: mendin, mendila). Aditz formak ere osoan

derabiltzaie: «zian», «zirade» (eta ez: zin, zide). Hots, egün Basabürian ere murrizten (eta gazteetan galtzen) ari diren forma klasikak derabiltza Bélapeyre-k.

Horiekin, euskara batuari hüllanago agitzen da xiberotarra: ezi kasik berdin dira, adibidez, «zirade» eta «zarete» («zide» eta «zizte» aldiz berezkorrik zaizt).

Belapeyre-k derabiltza ere gaur arroztüxeak eta «manextürik» bezala zaizkün hitz eta forma batzü: beldür, gertatü eta abar... (ikus azken hiztegi llaburra).

«Manex» eta batuaren fonemekin idazten düütü hitz zonbait: houx (huts), ourço (urzo), ourchapal (urxapal), ourçume (urzüme), gaur diogularik hüts, ürzo, ürzapal, ürzüme... Pentsatzeko da, janik aipatü bezala, fonetikan kanbio zerbait agitü dela geroztik xiberotarrean.

Gaurko ortografa batuan idazten düütü, ordükoz, hitz eli bat:

- gaignen (eta ez: gagnen) zenbait aldiz ja
- baitie, baitira, baihiz, (ai, eta ez: ei)
- zoin, ihor, nori, nola, ohore, gizon, honen, kontre, kontu, ezkontzen, hon, ontsa, honetan, honki (o, eta ez: u)
- mahaxanoa (mahatsardoa), doa, gainelacoac, laidorioac, ondoan (oa, eta ez: ua)
- mirail (eta ez: mirall)-manatu (eta ez: manhatu)

Hots, geroztik hanitxek erabili dien xiberotarra baino «modernago» eta batuago üdürützen zait Belapeyre-rena. Liferentzia gütiago zena ordian, euskalkien artean? Ala Lapurtar klasikaren eragina sendi da katekima hontan ere? Hura oso nabaria zen Oihenart eta Tartasen lanetan. Hemen arinago daitake eta aisa entelega dirogü zer gatik hola den: oso jente xehearen meneko egon behar dü katekimako hizkuntzak, Belapeyre-ren erranetarik ikus deza-kegüñ bezala.

Aipa ditzadan orai, zahartüxe zaizkün aditz forma batzü.

1 — Salvatu içateco: denbora historikoan, beti forma hori derabila Belapeyre-k. Gaur aldiz erabilten düü: «salbatürik» (izateko) forma.

2 — Gal eraciten, har eraciteco, eraci: gaur erran giniro «gal erazten, har erazteko, eraz».

3 — Jarraikitzen, idekitzen... erraiten da orano Basabürian, bereziki Santa-Grazin; Pettarrean aldiz: jarrakitzen, idekitzen...; baina bi partetan: jarren, ezarten...

Arkaismo güti edireiten düü Belapeyre-ren lanean.

Xiberotarrak batuari ekarten (bai, ekarten) deraitzon hontarzünetarik bat, indikatibozko gero-aldia, Belapeyre-k ederki egarten diana: nizate, hizate, date, girate, zirate, zirateie, dirate (izanen/go naiz, haiz, etab.)

Egún ere arruntean derabilagü, baina frankotan geroaldi arkaikoarekin nahasten dügü, «ke» batez emendatüz. Aldiz igaranaren partizipatik landa horra da geroaldi arkaikoa:

(Heltü) nizateke, hizateke, dateke, girateke, zirateke, zirateie, dirateke.

Bestalde da kondizionala: nintzateke, hintzateke, lizateke, girateke, zirateke, zirateie, dirateke. Bestalde orano naite(ke), haite(ke), daite(ke)...

Euskaltzaindia ez-da-bada zonbait üken nütian, egoki den bezala (egiarren xerkatzeko gira hor), aditz forma batzuetaz, hobeki erran potentzialeko plüralaz: niro, diro... plüralean nitro, ditiro... bühür daitezkeanez. Batzük baietz, egún ere ausarki erabilten dütögüla Xiberotarrek, bai eta beste iparrekoek. Baina hizkuntza mintzatia ez dela hizkuntza idatzia... Dagoela. Halere izkiribüz erabili dütiela Etxahun xaharrak eta berriak; ekarten dütila In-chauspe kalonjearen «Le verbe basque» delako euskal aditzak (300.n orrialdean); erabilten dütiela Eñaut Etchamendy-k eta Krugbi-k (Zehatz agerkarrian, N° 2, 69.n orrialdean: «ditirogu»)...

Har gatik franko berriak direla idazole horik euskal literatüraren eretzean eta ihon ez dela holako formarik edireiten idazole oso xaharretan: hots berriki gertatü ahal izan datekeala kanbio bat.

Geroztik ikusi düt 18-garren mentean Maisterrek zerabiltzala Jesu-Kristen Imitazionalean.

Auzia trenkatürük date oraikoan, ene ustez, Belapeyre-ri esker.

Zeren edireiten dügü:

—Lehen liburian,	114.n orrialden:	ditiroguia
— ” ”	139	gitiroana
— Bigarren ”	40	litiroyen
— ” ”	69	ditiroala.

Ber auzia izan zen erakusleetaz, bereziki horik-horiek eta hurak-haiiek formetaz: hots bi nominatiboen artean berezkuntzarik egin behar den ala ez.

Gaur nominatibo-pasiboan diogü: horik, eta hurak (hor daude) Aldiz ergatibo-aktiboan: horiek, eta haiiek (egin die). Hola diogü, eta idazten ere. Aita Casenave-rekin mintzatü niz püntü hortaz, düdarik ez dü harek ere, eta inprintaren gain ezarten dü «horik» eta «horiek» formen nahasirik agertzea «Santa-Grazi» pastoralean.

Aitor düt Etxahun xaharrean ez düdala gaiza hori hain argi ikusten: lau aldiz phürü pasiboan derabila «horiek» forma (Euskera 1970, 246, 374-2-al-

diz-eta 428.n orrialdeetan). Beste batzuetan «horik» erabilten dü pasiboan (berezi 350.n orrialdean).

Bélapeyre-k «hoyek» idazten dü pasiboan ere, kasik beti. Baino bi aldiz «horik» (p. 44 eta 61) nominatibo-pasiboan, eta behin «horiek» ergatiboan (bigarren partia, P. 12). Hots ez zen binomiarik hatsarrean. Belapeyre-tan poxi bat agertzen hasten da eta ondokoetan handitüz joaiten Xiberoan, gure egunko hausküra osorano.

«HURAK» formaz düdarik ez da azken bi mentetako xiberotar idazleean, ez eta ere Belapeyre-ren lanean: hurak derabila beti nominatibo-pasiboan, eta haien ergatiboan.

Ikusten dügü euskararen altetik katekima hortan badügula zer ikas Ziberotarrek phürü, eta besteek ere zerbait agian, nahiz haietan diren xiberotar literaturra hobekienik ezagützen dien euskalzale jakintsiak, berezi Haritschelhar, Michelena, Irigoien, Altuna, Villasante, Lafitte jaunak... Horien beharra badügü Ziberotarrek.

Lagüntüren gütie orano, hortaz düdarik ez düt, gihauk indar bat egiten balin badügü ja.

Halere, ihor ez baita perfect ez hutsik gabe, estakuria zonbait badü Belapeyre-ren euskarak ere: galizismak agitzen zaitzo builtaka perpausaren joskeran. Hala nola, bigarren liburian: -P. 27: batheyun gagnen (bataioaz). -P. 67: hasteco goçatcen bere erresumaren (bere erresumaren gozatzen hasteko). -P. 74: Haur certan uduri da Christien Pentecostia (Honek zertain üduri dü Kiristien Pentekostea). Hiru galizisma mota horietarik beste zonbait aldiz ere edirein daiot.

Azkenekoz aipa dezadan Xiverotarrek hain aisa hüts egiten dügün R letra. Bokalen arteko R bakuna, eztia, orai ez dügü ahozkatzen. Belapeyre-ren denboran ez dakit egiten zien ala ez. Baino izkiribüz ez dü hanbat hüts egiten jaun horrek. Aldiz RR bikunaren ordez, zonbait aldiz agertzen da R bakuna. Ez dakit idazlearena ote dan hütsa, ala moldiztarea.

LIBURIAREN IDEOLOGIAZ

Katekima hortan ikusten dügü zer zen erreforma katolikaren ezpiritua. Protestantismaren mehatxari bürü egiteko, Trentako Kontzilioaren ondotik zinez gogortüko da Eliza Katolika. Ber denboran azkartüz baitoa erregeren poterea, honi dei eginen daio Elizak bere larderiaren finkatzeko: ikus nola, mehatxi pean, errejenten hartzera eta pakatzera hersatürük diren Ziberoko

zinegotziak: 14 eta 15-garren orrialdeetan, frantzesez. Manü berra euskaranaz edireiten dögü 22-garren orrialdean, azken ondorioetarano eramanik:

«Gomendatzen dugu Jaun Patron, Juge, eta Cinegotci herri hontaco guier, norc bere lekhieta escu etchek decen, Catechimaren erran orenian batbedera hartara doen, berac ere han ikhousten dutiela; devetaturic languitia, iokiac tehernac; gucz Meça, Officio, eta Catechima saintiac erraiten direno; eliçac, eta goure erregeue Jaunec Manatu dutien penen pian.»

Ez dakit ondoko xehetarzün honek kontsola gintironez, baina ber bortxatzea edireiten dögü protestantak nausi ziren lekietan, bereziki Geneven. Horiaz irakur daite «La peur en Occident» izeneko libürian (Jean Delumeau, le livre de poche, L. 8350, 1980), eta bereziki 531 eta 532 garren orrialdeetan:

«Comment, à la lecture de ces statuts synodaux, ne pas évoquer, de l'autre côté de la frontière confessionnelle, les célèbres Ordonnances ecclésiastiques rédigées par Calvin en 1541 à l'usage de Genève? Les douze anciens du conseil y reçoivent mission «de prendre garde sur la vie d'un chacun, d'admonester aimablement ceux qu'ils (verraient) faillir et mener vie désordonnée et, là où il serait métier, faire rapport à la compagnie... députée pour faire les corrections fraternelles». Les anciens seront assistés de «dizeniers» charges précisément de surveiller leurs concitoyens dans les différents quartiers de la ville, «résolu... que les dizeniers aillent maison par maison faire commandement de venir au sermon». Quelques années auparavant, le luthérien Urbain Rhégius, farouche adversaire des anabaptistes, avait écrit à Philippe de Hesse:

«Il appartient aux prédicateurs de pousser les gens vers la prêche par de bonnes paroles et des exhortations; mais il appartient à l'autorité civile d'employer la force (si c'est nécessaire), pour conduire les gens au prêche ou les détourner de l'erreur...»

«Jamais auparavant le compelle intrate n'avait été appliqué en Europe occidentale et centrale avec autant de vigueur et surtout de méthode qu'à l'époque des deux Réformes religieuses. Surveillance, quadrillage, encadrement: autant de termes qui expriment dans notre langage moderne les moyens employés pour rendre les populations d'alors plus chrétiennes, plus morales, plus dociles.»

Jenteen kiristiagotzea da denbora hortako elizen arrenküra nausia. Ezi erdi pagano egonak ziren kanpainetakoak, ez soilik Euskal-Herrian, baina Europa güzian. Axaletikoa zen haien kiristitarzüna, eta elizen litürgiari nahasten zien, fede hoberenarekin, errelisione zaharren herexa eta keinü franko. Leheneko jinkoak debriarentako hartzen zütien aldiz elizek eta jente eskolatiek. Hortik sorgin, azti eta belzagilen kontreko auziak, Euskal-Herrian eta besteetan, Berpizkunte güzian. Bakantürk ziren Belapeyre-ren denborako. Baina haren libürian edireiten dögü sorgin, azti eta belzagilen ofizioez dian

arrenküra, 86, 87 eta 88.n orrialdeetan. Hona haren azken hitzak, oso argigariak eta garratzak:

«Eta guero hartcen die bere Jaun eta burçagui Deebrain, adoratcen die, cerbutchatcen, eta harc nahi beçala, bera laguncen çayela, eguiten dutie gaizki ahalac oro, guciz haurretan, aberetan, eta lurreco frutietan: halatan munduko gente gaistoenac dira Gincoaz eta legue oroz erre merechi dienac.» Erre merexi dienak... Hitz izigarriak!

Jenteen obedientago egitea, beste arrenküra nausi bat, elizer üssü erasiatüko eta erreprotxatüko zaiena, are gehiago sozial mailean ideologia loakar erazle bat berekin dakarrelarik. Eta ezin erran Belapeyre-ren libürian ez dela holakorik, ezen hau dio, ez katekimaren korpitz anoniman, baina berea dian sartzeko aholkian, 25 garren orrialdean:

«Orano erretorec eçagut eraciren derie aita amer, burçagui burçaguisser bere haur eta cerbutchariac onsa escola eraciten badutie, lehenic hayen iaki tiaren frutia berec goçaturen diela; ceren Gincoaren leguiac ikhassiric, haren cerbutchari hobe baitirate, hanbatenaz emiago eta bere peco baitucuye.» Hanbatenaz emeago eta beren peko baitütükeie... Hitz izigarriak horik ere, lo belhar eta opio ürrin azkarra dienak!

Katekimaren barnean ikusten dügü nola den mendren xehetarzünean sartzen den ordüko Eliza Katolika, gaiza güziak batakitzala eta orotan arrazo diala: ber heinean dira hor, nik uste, Jinkoan sinestea eta edozoin xehetarzün ttipi, hala nola ostiraletan eta neskeneginetan mehe egitea. Behar ere geroztik egia handiak eta gaiza ttipiak beste hein eli batetan ezari düdü Elizak.

Denbora hartako ideologiaren argigarri, 34.n orrialdean ikusten dügü Jüdiaok direla Jesü-Kristen ehaile bezala ekarririk:

«G. Cer herioz hil da Jesus-Christ?

I. Iudien curutchiaren pena laidogarriaz...»

Azkenekoz, hona Elizaz nola ikusirik zen, pratikan, eskümükü zen kirisia, 115.n orrialdean:

1, ..., 8: Elizatik eta haren zerbütxüetarik kanpo zagoan: ez da hortaz harritzerik. Baino:

«9. Escumucatia Eliçatic icentatu bada, devetu da hari mintçatcia, hareki iate eta edatia, egoitia eta gagnelaco navastarriac, Escumucuren penan, 10. harten hil badite, hayen arimac Dee briari utci dira, bethicoz Ifernian erratceco.»

Udüriz, lurrean manatzea ez zaion aski ordüko Elizari: zelia eta ifernia ere kudeatü behar zütian, Jinkorik ez balitz bezala. Eta zer karitate saintia, kartsia, gartsia, bekatoreen eretzeko (ala erretzeko?).

Katoliko girenek —eta zabalkiago kiristi girenek— ikus dirogu gure Stalisması içindeki düşünlüklerin en kötüsü. Eta horrek ogen handia egin daioke Euskal-Herri'yi, özellikle euskal literatürünü. Hau ez baitzen hazten ahal bere bürlük setiatürük senditüz, herriar bakoitzaz setiatzen zian gizarte batean. Libertatea da, düda gabe, literatüren liliak hazten dütian hongarria. Eta zoin-gehiagokada teke haren aziak hedatzen dütian haizea.

Zoin-haborokaren eraginaz ederki dio San-Martin'ek: «*Ifar Euskal Herri'yan ideologia borrokek bizkortu zuten euskarazko literatüra. Politika eta erlijioa nahastu ziren eta elkarren arteko norgehiagokoa sortu zen lehenbizi; kalbindarrak beren doctrina berriak hedatu nahirik eta katolikoak kontrakanpaina bat ondorean. Dena izan zen euskal literaturaren bizkortzerako eta pizteko. Horrela, XVI. mendearren azkenaldea eta XVII. aren lehenak sus-traitu zuen gure literaturaren hastapena.»*

Azken batez ikusten duguna, literatura landuaren sorrerako mugimendua, ideologian oinharritua zela, ekonomia alderditik baino gehiago.» Bainan beste auzi batean sartzen gira hemen...

Bai, hola mintzo zaikün Juan San Martin,/bere Euskaltzaindian sartzeko hitzaldian, Urdazubin, 1974-garreneko Irailaren 14-an (Euskera, XX, 1975, 205 eta 206.n orrialdeetan). Aisa harekin bat nago, püntü hortan nik baino haboro baitaki, eta dakidan apürrak ber ikuspegialat bainerama.

Hego aldean ez zen izan holako zoin-gehiagokarik, indarrik ez baitzian hartü protestantismak: beraz 18-garren mentean baizik ez da hasiko gipuzkeria eta bizkarierazko literatüra.

Ipar aldean berriz, ez dü lüzaz irainen zoin-haborokak, Louis XIV garrenaren egintzaz lehertürük baratüko baita protestantisma. Garai eta üne hortan agertzen da Belapeyre-ren libürüria. Ondoko mentean beherapen handia düke ipar aldeko literatürak. Egia erran ordükoz eztitzen hasirk zen, Axular, Oihenart eta Tartas-en obren ondotik.

Ideología baten ikertze hau ez dü ürrentü nahi, dütian alde honak ere aipatü gabe. Hor erdiz-erdi edireiten düt Elizak jente xeheez dian arrenküra.

Horietaz ürriki eta pietate handia erakutsi daikü Belapeyre-k berak. Aitzin solaz hontan, goraxago aipatü daiziet, «çoin genté checec ençun beçain sarri ahazten baitutié, ceren bortu arté hoyetan gouré Laborari eta Cabaleçain gachoac lanez akhituric, hen espiritiac hain sortha eta Lamputs guertatzen baitira, Non haboroetan Predicu handiec eliçan lehen lo eraciten baitutie...» (Bigarren libüriaren sarreran, P. 4-5).

Eskolak eraiki nahi dü tü Ziberoan, ahalaz parropia güzietan. Segür ere, katekimaren irakurteko eta hobeki ikasteko zaitekean. Bainan mündüko beste eskolak ere, holako xede interesatü batekin eraikitzen diren: goberniari, edo

nausiari, edo gizarteari baliatüko zaitzon jakitate, jakintza, zientzia, teknika eta ideologien ikasteko. Bada ere orai jakintsünik, arrazo arrunt bat edireiten dioienik izkiribiaaren sortzeari: idazkera Sumerren asmatü zien, gisala, ogi edo gari zakien, aferma sarien, zergen eta legarren hobeki kontatzeko eta kontien ez ahazteko. Ez zena behar, ala?

Xedeak xedetegi, dakusagün eta estima, jente xeher zer honkia egiten edo eginen zaien Elizak, irakustzen irakatsiz!

Azkenekoz hona zer edireiten dügüñ 57-garren orrialdean:

«G. Çonbat dira Gincoaren aitcinian mendecu oihuz daudian bekhatiac?

«I. Laur: 1. aitcinetic gogoaturic eguiten den heriotcia, 2. naturaren contre eguiten den araguizco bekhatia, 3. prauver gaizki eguitia, 4. mithil, nescato, eta languiler bere sarien eta bekhularien ukhatcia, edo bortchatcia.» (Nik azpimarratürik).

Azken bi püntü horier emaiten zaien importantzian eta garrantzian, ez deia sendi harrigarriko noblezia bat: Jüdioetarik ükenik, Elizak bere hüts güzien artetik Fedearen hütxa sakratian etxekirik, gizon bakoitzak dian ezin hunkizko noblezia eta diñitate ikaragarria. Hori ere Belapeyre-tan dago.

LITERATURA

Lege gizonen artean eraikirik, Jinko legean hazia bai etxeen, bai eskolan, haren inposatzear kargatürik, legezko lan bat egin behar zian beraz legezko libürü den katexima hortan. Nahi üken balü ere, ez zezakean hor literatürarik egin.

50 14. Igantian.

BEDERATÇUGARREN CAPITULIA.

Espiritu Saintiaren dohagnés, eta besté verthutéz.

- G. Ç Ombat dira Espiritu Saintiaren dohagnac?
- I. Çazpi: 1. çuhurtcia. 2. Entheleguia, 3. jakitia, 4. devocionia,
5. Aholkia, 6. Indarra, 7. Gingoaren beldurra.
- G. Çonbat dira obra misericordiazcoac?
- I. Hamalaur: cazpi arimari honkiten direnac eta besté cazpi
corpitzari.

- G. Çoin dira arimacoac?
- I. 1. Eztakiener eracastia, 2. oguendunen gaztigatcia, 3. beharrren honiala aholcatcia, 4. penatieng consolatcia, 5. gaizkien emeki egartia, 6. oguen eguiten derikiener parcatcia, 7. bici eta hilen, goure exayentaco ere Gincoari ottoitz egutia.
- 51 G. çoin dira corpitcecoac?
- I. Gosse direner iatera emaitia, 2. Egarri direner edatera, 3. bilaicien veztitcia, 4. eri eta personaren urgaztia, 5. senthorale etchera hartzia, 6. captivoen arrerostia, 7. hilen ehorztsia.
- G. Conbat dira hobe içateco aholcu saintiac?
- I. Hirour: 1. bere gogozco baguecia, 2. bethiereco caritatia, 3. Sori diren gaiça orotan sinhestia.
- G. Nor gertha daite dohaxu?
- I. Çortzi gente guisa, 1. bere nahiz prauvé direnac, 2. eme direnac, 3. bere bekhatiez nigar eguiiac, 4. çuçen eguiiac, 5. misericordia eguiiac, 6. bihotcez chachu direnac, 7. bakezcoac, 8. eguinbidia gatic egariac.

52 15. Igantian.

HAMARGARREN CAPITULIA

Bekhatiaz, eta haren Erremedioéz, Indulgenciez ere.

- G. Cer da bekhatia?
- I. Gincoaren leguia hausten diana oro.
- G. Conbat bekhatu guisa da?
- Rom. I. Biga: Originala, eta actuala.
- ^{5.} v. 12 G. Cer da bekhatu Originala?
- ^{19.} Ps. 10 I. Adam munduko lehen guiçonaz egun duguna, çognez coçaturic sortcen baikira.
- G. Cer cen bekhatu hora?
- I. Gincoac frutu devetatu cerionaren iatia Eden deitzen cen baratcian, edo lurreco Paradussian.
- Gen. 2 G. Frutu hora gaisto cena?
- I. Ez; Gincoac eztu Deus eguiten gaistoric.
- G. Cergatic beraz Gincoac devetatu cerion hora guiçonari?
- ^{53.} I. Sinhexiren cianez borogatceco.
- G. Cerc eragotci cian lehen guiçona manu haren haustera?
- I. Deebrick hartara tentatu cian, eta aholcatu Eva haren emaztiaz.

- G. Guiçonac arren eztu eguin bekhaturic, Deebriac eraguin derionaz gueroz?
- I. Bay bekhatu handi bat ere, Gincoaren graciarekin espiritu gaistoaren tentacionia gaeraiten ahal cianaz gueroz.
- G. Cer da bekhatu actuala?
- I. Guihaurec eguiten duguna.
- G. Conbat bekhatu actual guisa dira?
- I. Biga: mortala, eta veniala.
- G. Cer da bekhatu mortala?
- I. Gincoaren gracia gal eraciten dericuna, eta goure arimari Celuko bicitcia edekiten deriona.

54 16. Igantian

- G. Conbat dira bekhatu mortal guehienac?
- I. Çazpi: 1. Urguillia, 2. Avaricia, 3. Araguizco bekhatia, 4. bekaizteria, 5. gormandiça, 6. khechueria, 7. herrabia.
- G. Cer da bekhatu veniala?
- I. Gincoaren gracia edekiten ezteicuna, bena bay hozten haren maitetarçuna.
- G. Bekhatu mortaletan hilcen direnac cer guerthatcen dira?
- I. Ifernalat doatça, bethicoz han Deebriki érratcera.
- Gen. 3. v. 16**
- G. Bekhatu venialetan hilcen direnac mortalen ere oguenac parcaturic hayec oroc merechi cien penitencia, mundu hon-
- 2. Reg 11. 55**
- G. tan aski onsa eguin gabe, cer guerthatcen dira?
- I. Cor. 3 v. 13 15**
- I. Purgatoriola doatça.
- Conc.**
- I. Cer da Purgatorioa?
- Trid.**
- I. Lur pian suz bethe den lekhu bat Iferniaren althian, non ari-
- Ses 25**
- meec pena ecinago garratçac pacatcen baitutie, eta çognec bekhatien arau luçaz iraiten baitie.
- I. Purgatoiroco pener ihes eguiteco, cer eguin behar da?
- I. Bici guireno penitencia; Ingulgencia eta Jubileüac iravaz;
- Sacramentiac ardura har Meça ençun devotki; Gincoa onsa othoi, eta gagnelaco obra onac eguin.
- I. Goure bekhatiegatic Gincoari çor deritçogun pena tempo-
- ralen parcamentia, çoin Eliçac Penitenciazco Sacramentutic berhez emaiten baitericu, graciatan iarten baguira, eta obra honac eguiten.
- G. Eliçac Indulgenciez, eta Jubileüez nola parcatcen derizcu goure bekhatu parcatiec merechi dutien gaztiguiac?
- I. Jesus-Christen, Andre Dana Maria, eta beste saintien hon-

guiguinac, Gincoari çor deritçogunen honimentutan, eretchekiten derizcula.

- G. Norc eman ditçaque Indulgenciac?
- I. Aita Saintiac Eliçaco orori, Eta Jaun Apezpicuec bere peccuer, Eta Apeçac chede eşari deritcenen arau.
- G. Purgatorioan diren arimac goure othoitcez, ohereskiez, eta penitenciez urgazten ahal dutugua.
- I. Bay, guciz Meça saintiez, coinac ardura goure askaci, adiskide, eta hilentaco erran eraci behar baitutugu; hartaco ere dira bethiz gueroz ordegnietan ordenatzen Prevendak eta Obitac ourthecal arimen orhitçarriac.

17. Igantian

HAMECA GARREN CAPITULIA

*Espiritu saintiaren contré diren bekhatiez, eta beste
Gincoaren aitcinian oihuz mendeku galthera daudianez.*

- G. Conbat dira Espiritu saintiaren contre diren bekhatiac?
- ⁵⁷ I. Sey: 1. Gincoaren misericordiaz exitia, 2. obra honic gabe salvatu oustia, 3. Eguia daquianaren ukhatcia, 4. besteren hon espiritualaz bekhatitz içatia, 5. bekhatian uxu eta gogor egoitia, 6. azkenecoz bekhatu mortalian hilcia penitenciaric eguna gabe.
- G. Conbat dira Gincoaren aitcinian mendecu oihuz daudian bekhatiac?
- I. Laur: 1. aitcinetic gogoaturic eguiten den heriotzia, 2. naturaren contre eguiten den araguizco bekhatia, 3. prauver gaizki egutia, 4. mithil, nescato, eta languiler bere sarien eta bekhularien ukhatcia, edo bortchatzia.
- G. Çonbat dira arimaren exayac?
- I. Hirour: 1. Deebria, 2. araguaia, 3. Mundia çointaric handiena baita araguaia; ceren Deebria eta mundia iraiz baititçakegu, bena ez araguaia.

LAUR URHENBURIEZ

- G. Conbat dira gentiaren urhen buriac?
- ^{8y} I. Laur: 1. hilcia, 2. Jujamentia, 3. ifernia, 4. Paradussia.
- G. Cer da hilcia?
- I. Azken bethiereco Arresta, çein Gincoac emanen baitu gente honen althé, eta gaistoen contré.

- G. Conbat Jujamentu guisa da?
- I. Bigataco: bat bederarena, eta guciena
- G. Noiz daté bat bederaren Jujamentia?
- I. Hil beçain sarri.
- G. Noiz daté ororena.
- I. Mundiaren urhencian.
- G. Cer da ifernia?
- I. Lurraren çolan suhalamaz bethe den presoubat, gaistouen bethicoz gaztigatceo.
- G. Cer da Paradussia?
- I. Celian ohorez eta ditcha oroz bethe den lekhu bat, bethicoz gente perestien saristatceco.

59 18. Igantian

HAMABI GARREN CAPITULIA

Sacramentu guciez, cognez Gincoac emaiten bainteriu bere gracia

- G. Cer da Sacramentia?
- I. Cegnhare agueri bat, cognec Jesus-Christen manuz eta indarraz eraçagutzen, eta emaiten bainteriu Gracia agueri eztena, goure arimen saintutceco, onsa hartzen dugunian.
- G. Conbat Sacramentu dira?
- I. Cazpi: Batheyia, Confirmacionia, Corpitz Saintia, Penitencia, Oliadura, Ordena, eta Ezconcia.
- G. Norc ordenatu dutu Sacramentiac?
- I. Jesus-Christec.

HAMIROUR GARREN CAPITULIA

Batheyiaz

Joan. 3. v. 5. Math. 28. v. 19.

- G. Cer da Batheyia?
- I. Lehen Sacramentia; cognec sortcetic oroc dugun bekhatu

originala chahatcen baitericu, eta Christituric Gincoaren, eta Eliçaren haurrac eguiten.

G. Norc batheya diro?

I. Jaun Erretorac edo haren lekhucoac, eta hoyec hel eztitakianian norc nahi, aita améc ere, hobeki daquianac.

G. Cer beha da onsa batheyatceco?

I. Hirour gaiça: Houra, hitçac, eta Intencionia.

G. Certan dago Intencione hori?

I. Eliçac eguiten dian beçalaco Christau baten eguin nahian.

G. Çoin hitz erran berar dira?

61 I. N. Batheyatcen ait Aitaren † Eta semiaren † Eta Espiritu Saintiaren icenian † halabiz.

G. Hitz horic çoin minçaragez erran behar dira?

I. Çoinçaz nahi.

G. Çoin hourez batheyatu behar da?

I. Hour naturalaz: eci eztaite batheya arrosa hourrez, saldaz ehez, ez eta belharretaric elkhiten direnez.

G. Nora issouri behar da batheyuco hora?

I. Haurraren buriala, edo bortchan haren besté eretcé guehien agertian.

G. Noiz issouri behar da hora?

I. Erraitian, Batheyatcen ait Aitaren &c.

G. Haurra bici edo onsa batheyatu denez duda denian, cer eguin behar da?

I. Batheyatu behar da houla; Gincoaren haurra bici bahiz, edo onsa batheyatu ezpahiz, Batheyatcen ait Aitaren † &c

G. Hil beldurrian Etchen, edo bereber haurra batheyatu denian, Berriz Eliçan,

batheyatu behar dia?

62 I. Ez; ordian aski da, eman dakitçon Crisma eta gagnelaco Eliçaren Ceremonia Saintiac.

G. Cergatic Eliçan haur batheyatcen denac eguz aita, eta eguz ama behar dutu?

I. Eracousteco: hala nola bere aita eta ama naturalec corpitça eman baiterie, Gincoac eman derion arima bekhatiac theyturistic, Eguz aita améc batheyiaren graciaz chaha eraciric, Jesus-Christen leguian ahalaz bici eraciren diela, Gincoari haur espirituz berriz sorthiaren bermé sartcen direla.

G. Bermé espiritual hayec çonbat ourthe behar die?

I. Eguz aitac hamalaur; eta Eguz amac hamabi, biac onsa ikhassiac direlaric: gaztiagori ere fedezco puntu guehienac eta othoitciac balin badakitce.

- G. Coin icen haurrari eman behar çayo?
- I. Saintu batena mithilcoari, eta sainta nescatilari; amorecatic Paradussian
- 63 Gincoa gana artecari eta Patron hora ukhen deçan; lurrian deno haren verthuter iarraiki dadin, eta othoitcer comenda.
- G. Eguiten deya ascazunteric batheyian, eta Confirmacionian?
- I. Bay espiritualki: haur batheyatiaren eta batheyaçaliaren; Eguz aita amén eta Eguz aita amen artian: berhala guertha-tcen da Confirmacionian hatacoz etçate hayer sori algarreki ezconcia.

19. Igantian

HAMALAU'R GARREN CAPITULIA

Confirmacioniaz

Act. 8. v. 14. 15. 16. 17.

- G. Cer da Confirmacionia?
- I. Sacramentu bat, çognec emendatcen baitericu gracia eta in-dar batheyiac eman
- 64 derizcunac Jesus-Christetan dugun sinhestiaren eracous-teco, eta Christi ossotcen Espiritu saintiaren dohagnez.
- G. Nola içan behar da, Confirmatu icateço?
- I. Cofessaturic graciatan, eta jakin paterra, AVE MARIA, CREDOA, Gincoaren, eta Eliçaren maniac, baita fedezco puntu guehienac.
- G. Sacramentu haur gabe salva guitakia?
- I. Bay: bena hartcen ahal dialaric, eizten dianac bekhatu handi eguiren du.
- G. Norc Confirma diro?
- I. Jaun Apezcupiac.
- G. Cer adin behar da Confirmatu içateco?
- I. Cazpi ourthé, eta Gincoa eçagutu.
- G. Cer da Confirmacioniaren materia?
- I. Crisma Saintia, çoin baita olio balsamoareki nahassia, eta ostegun saintian Jaun Apezcupiac consecratia.
- G. Olioac cer eracousten du Confirmacionian?
- 65 I. Haur hedatcen den beçala, Espiritu saintiac issouriz bere graciac arimari emaiten deritçola.

- G. Cer eracousten du balsamoaren urrin honac?
- I. Goure bicitcé perestiaren urrin honez algar escolatu behar dugula.
- G. Cergatic Jaun Apezcupiac berecatcen du confirmatcen dia-naren belarra?
- I. Eracousteco: haur nola baita corpitçaren eretce gorena, eta non agueri baitira beldurraaren eta ahalkiaren cegnhariac, Jesus-Christen fedia goraki lotsa gabé haren exay gais-toenen aitcinian aithortu behar dugula.
- G. Cergatic Jaun Apezcupiac confirmatiari emaiten derio ma-chelan escu khaldi bat?
- I. Orhit dadin, adelaturic egon behar diala, gaizki eta desdi-tcha ororen Gincoaren amorecatic egarteko.
- G. Conbatetan ihor confirma daite?
- I. Ez behin baicic: Ezeta batheya, ez ordena; ceren hirour Sa-cramentu hoyec Caractero eta cegnhare espiritual gal eztica-kian bedera, arimari eretche-
kiten baiteritce.

66 20. Igantian

14. Igantian

HAMABOST GARREN CAPITULIA

Penitenciaz

Math. 16. v. 19. Joan. 20. v. 23. Act. 19. v.

- G. Cer da Penitencia?
- I. Sacramentu bat, çoinçaz batheyatuz gueroz egun dutugun bekhatien parcamentia ardiesten baitugu.
- G. Cer behar da Sacramentu honen hartceco?
- I. Hirour gaiça: Contricionia, Confesonia, eta satisfacionia.
- G. Cer da Contricionia?
- I. Urriki eta dolu bici bat Gincoari oguen egun daritçogunez, orotako hobena delacoz; hari hitz emanic ezkirela berriz he-tara eroriren, eta igarenez cofessaturen guirela.
- 67 G. Contricione berareki salva guitakia?
- I. Bay osso bada, esta ecin cofessa baguité.

- G.** Cofessatcian, arras ukhen behar duguia contricionia?
- Cone.** I. Hobena liçate, eta Gincoari hora ahalaz galthatu behar de-
- Trid.** riogu: orotratere hora eztugunian, Atricionia aski dugu
- Sess.** 14. Cofessioniareki.
- 6. 4.** G. Cer da Atricionia?
- I. Dolu ukheetia Gincoari oguen eguiñez, bekhatiac Paradus-
sia gal eraciten dericulacoz, eta eragoizten Ifernuco peneta-
ra.
- G. Cer da Cofessionia?
- I. Goure bekhatu ororen Gincoari aithortcia, hourac partca-
tzen ahal derizcun Apeçaren aitcinian.
- G. Cer behar da Cofessione hon baten eguiteco?
- I. Bost gaiça: 1. bere concencia onsa ikher, 2. bekhatu oroz
dolu, 3. Apeçari oro cofessa, 4. har gogo azcar bat, ez hetara
erorteko guehiago, 5. ahalic
- 68** 68 sarriena Eguin penitencia Cofessoraz emana oro.
- G. Cer da satisfacionia?
- I. Gincoari eta goure laguner çor deritcegunen pacatcia, goure
Cofessoraren maniaren arau.
- G. Penitencia eguiñ Ezpaliz, hon liçatia Cofessionia?
- I. Bay: bere nahiz eizten dianac, haren eguiñ gabez bekhatu
laidi.
- G. Nola hassi behar da cofessatcen.
- I. Apeçaren aitcinian belharico cegnaturic erran, Idaçu Aita
çoure benediccione saintia, bekhatore bainiz; guero erran.
Cofessatcen niz Ginco potere oro dianari, Maria bethi Vir-
gina dohaxiari iondane Gneli Archangeliari, iondane Joha-
ne Baptistarri, iondane Petiri eta Paule Apostolu saintier,
besté saintu orori, eta çouri aita Espirituala, ceren sobera
bekhatu eguiñ baitut pensamentuz, hitcez eta obraz; Ene
faltaz, Ene faltaz, Ene falta handiz Hartacoz othoitzen dut
Maria bethi Virgina dohaxia, iondane Gneli Arcangelia,
iondane Johane Baptista, iondane Petiri
- 69** 69 eta Paule Apostolu saintiac, eta beste saintiac oro; Eta çu
Aita Espirituala, Gincoa othoi deçaien enegatic.
Edo latiz Confiteor Deo & c.

21. Igantian

HAMASEI GARREN CAPITULIA

Corpitz saintiaz

Math. 26 v. 26. Marc. 14. Luc. 22. Joan. 6. 1. Corinth. 11.

G. Cer da Corpitz saintia?

- I. Althareco Sacramentu saintia, çognec goure arimaren bici garri baitaduzca eguiazki Jesus-Christ goure Jaunaren corpitça, odola, arimá eta Gincortarçuna, oguiaren eta mahaxanoaren urudien pian.

G. Cer dira uduri hourac?

- I. Goure sendimentier agueri diren chouritarçuna, biriviltarçuna, handitarçuna, figura eta goçoa.

70 G. Ezteya Oguiaren eta mahaxanoaren içatia urudi hayeki.

- I. Ez: ceren hora eguiten baita Jesus Christen corpica eta odola; Apeçac Meça Saintian, Ostia eta mahaxanoa consecratcen dutian beçain sarri.

Conc. Trid. Sess. cap. 1. 2. 3. Math. 26 G. Nola borotgatcen duçu Miraculu handi hori?

- I. Jesus Jaunac berarc Evangelioan erran dericu, Oguia eskie-tara harturic.

HAUR DA ENE CORPITCA eta Mahoxanoa çalitçan ecarri-ric.

HAUR DA ENE ODOLAREN calitça.

G. Noren hitcez eta indarraz eguité da Meçan Consecratione hori?

- 71 I. Jesus-Christenez, çoin Apeçac haren manuz, eta lekhuco beçala erraiten baitutu.

G. Noiz eguiten da hori Meçan?

- I. Apeçac Ostia saintiaren, eta Calitçaren goratceracoan, erraiten dutianian hitz Sacramentalac.

Latrie. Ps. 96 Math. 29 G. Ordian Iesus Christen corpitz, eta odol sacratiac adoratu behar direya?

- I. Bay onsa, hala nola hayen hartcian, ceren ezpaititake berhez haren gincotarçunetic.

22. Igantian

- G. Corpitz saintia errecevitcen dianac, Jesus-Christen odol preciatia ere hartcen dia?
- I. Bay: ceren haren corpitz arrapiztia bethi bici dena, odolarekin baita.
- G. Jesus-Christ nola dago ostian?
- I. Espiritia corpitzian dagoan beçala, osso ostia gucion, baita haren eretce orotan: hartacoz Ostia hausten denian, ezta batere hausten Jesus-Christen
- 72 corpitça, bena bay oguiaren uduriac.
- G. Ostian içateco, Jesus-Christ elkhiten deya celutic, ala ordu berian han ere dago?
- I. Ezta hantic ialkiten, Celian eta Sacramentu saintian da behincoaz Gincoaren ahalaz.
- G. Noiz manatu içan da Sacramentu haur?
- I. Ostegun saintu gayan, Jesus Iaunac erranic, eguzie haur ene orhitçarretan; eta ordu berian Apostoliac Apéz eguziutian.
- G. Cer behar da Sacramentu honen merechituric hartceco?
- I. Fedia, chahutarçuna, devotionia eta barour içan.
- G. Cer sinhexi behar da ossoki Sacramentuhonez?
- I. Naturaz gainti hontan dela Jesus-Christ.
- G. Jesus han goure corpitzeco beguiez ikhous diroguia?
- I. Ez goure corpitzian arima beno haboro, ceren nola espiritiatren anço han
- 73 baitago, eztaite ikhous goure arimaren beguiaz baicic, coin baita fedia.

23. Igantian

- G. Cer chahutarçun galthacen dericu Sacramentu honec?
- I. Bekhatu, guciz mortalic gabé içatia.
- G. Cer devocione?
- I. Verthute berheci çonbaiti iarraikitia; eta beguiac beheratric, corpitça chahuric, armari batere gabé hora errecevi graciatan, eta beharra bada onsa cofessaturic.
- G. Nola barour?
- I. Gaiherdiz gueroz deus ian ez edan gabé salbu eriac hilceracoan.
- G. Coin adinetan, eta nola ikhassiric hartu behar da corpitz saintia?
- I. Mithilcoec hamalaur ourthetan, eta nescatilec hamabitian;

othoitciac eta Catechima ikhassiric, cofessorari hobekien urudi çayon beçala.

- 74 G. Erier eman bahar çayeya corpitz saintia eta hora hetara laguntu?
- I. Bay hayen errekeitariec orduhonez eman eraci behar derie, hen arimaren eta corpitçaren hazcurre hobena denaz gueroz: eta hari ohorez jarrikiric, eria Gincoari gomendatu.
 - G. Meçan Ostia Saintiaren goratcian, cer erran behar da?
 - I. Adoratcen çutut umilki Jesus-Christ ene Salvaçaliaren corpitz sacratia Maria Virgina ganic sorthia, eta curuchian energetic hil cirena; aragui bicia, arima saintia, Gincotarçun ossoa, eta ororen Salvamentia, çoure amorio handiaz othoy parca ene oguenac.
 - G. Apeçac Calitça goratcian, cer erran behar duçu?
 - I. Adoratcen çutut umilki Jesus-Christ ene Salvaçaliaren odol preciatia; Ene bekhatu ororen chahatceco issouria içadaçu othoy ene arima, eta Salva neçaçu çoure hontarçunaz.

75 24. Igantian

HAMAÇAZPI GARREN CAPITULIA

Meçaco Sacrificioaz

Luc. 22. v. 19. Hebr. 5 v. 1. Act. 13 v. 2.

- G. Cer eguiten duçu lehenic Jesus-Christen Corpitçaz eta odolaz?
- I. Meça saintian oherescatcen citiçut Ginco Aita bethierecoari, hen merechiez ene bekhatien parcamentiaren eta behar ororen ardiesteco.
 - G. Sacrificio honçaz cer enthelegatcen duçu?
 - I. Gincoaren handitarçunari altharian bere semiaz eguiten çayon ohereskia, hari laquetenic çayona beçala.
 - G. Cergatic eguiten da sacrificio haur?
 - I. Jesus-Christec curutchian berartçaz eguin dianaren orhitçarrretan, eta haren verthutiaren gouri eretchèkiteco.
 - 76 G. Meçaco sacrificioan Jesusec issourtcen dia bere odola, besté orduz curutchian beçala.
- Rom. 6 I. Ez: sacrificio haur odolstatu gabé da?
- G. Jesus Christ hilcen deya sacrificio hontan?
- I. Bay uduritan, bena ez eguiatan.

- G. Nola hori?
- I. Uduri delacoz, misterio hontan haren corpitz eta odol edireiten direnac Ostian, eta Calitçan bata bestiaganic berheci direla.
- G. Bena eguiazki berheci direya?
- I. Eztitake berbez guehiago, Jesus-Christ hiletaric piztuz gueroz.

25. Igantian

- G. Meçaco sacrificioan edireitian cer eguin behar da?
- I. Orhitu Jesu-Christen hilçiaz, Calvarioan ikhousten bagunu beçala, eta haren minez honki goure bihotçac.
- G. Eliçac Gincoari cer eskencen derio Meça saintian Jesusen, corpitz eta odo-lareki?
- ⁷⁷ I. Christi hon ororen othoitz eta gogo honac.
- G. Cergatic?
- I. Gincoari laket çaitçolacoz, bere Semiaren corpitz eta odolarekin eskencen deritçogunian.
- G. Nori eguiten da Sacrificioa?
- I. Gincoari berari, haren guehiangoa eta hontarçun ecinago handien eçagutceo.
- G. Cergatic Paradussian diren saintiez orhitçarre eguiten da Meçan?
- I. Gincoari eskerren emaiteco harganic ukhen dutienhonez; Eracousteco ere saintu, eguin direla hontan oherescatcen deriogun Jesu-Christen merechiez, eta artecari içan dakizcun Gincoa gana.
- G. Cergatic Apeçac Meçan hartcen du Jesus-Christ oguiaren eta mahaxanoaren bi udurien pian; ez aldiz bestec?
- I. Hobeki Sacrificadore beçala eracousteco Jesus-Christen ari-maren eta corpi-
- ⁷⁸ tcetic berheztia curuchian; haren beraren corpitz eta odolaren hartciaz, oguiaren eta mahaxanoaren bi udurien pian; çoinezpaita eman Apez eztirener.

26. Igantian

HAMACORTCI GARREN CAPITULIA

Oliaduraz

Jac. 5 v. 14. Marc. 6 v. 13.

G. Cer da Oliadura?

I. Sacramentu bat; çognec eriaren bekhatu venialac parcatcen baitutu; hora azcarcen Dee briaren tentacionen goitceco, baita ossagarria arremaiten, haren hobena bada.

G. Sacramentu honec herioa lehia eraciten dia?

I. Ez.

G. Oliatceco, uguruki behar deya, eria azken haxian den?

⁷⁹ I. Ez bortchaz baicic, eci ikhousten bada eztaitiala itçour bere gaitcetic, ahalic sarriena eta eçagutcia diano, olia eraci behar da.

G. Oliatu gabe salva guitakia?

I. Bay: alabena heravez uzten bagunu, oguen handi gunuke.

G. Eritarçun batetan ihor olia daitia berritan?

I. Ez behin sendotuz gueroz, arrerituric hilcera giten ezpada.

27. Igantian

HEMERETCU GARREN CAPITULIA

Ordenaz

1. Tim. 4 v. 14. 2. Tim. 2 v. 5. Hebr. 5 v. 4.5.

G. Cer da ordena?

I. Jaun Apezcupiac emaiten dian sacramentu bat; çognec Eliça guiçoner bere eguinbide saintian, eta sacrificio en eguiteco, baita odolarene bester Sa-

⁸⁰ cramentu saintien emaiteco ahala baiterie.

G. Conbat Ordenu da?

I. Cazpi: Apeztarcuna, Diacretarçuna, Soudiacretarçuna, Acolita, Exorcista, Iracourçale, eta Borthaalçaingoa.

G. Tonsura Ordenu bat deya?

I. Ez Ordenetara adelu bat baicic.

- G. Har diroya Tonsura, Ordenu Sacratiac hartu gogo Eztutianac?
- I. Eztiro bekhatu eguin gabé.

HOGUEI GARREN CAPITULIA

Ezconciatz

Ephes. 5 v. 32.

- G. Cer da Ezconcia?
- I. Sacramentu bat; coinçaz Gincoac guiçona eta emaztia al-garganateen baitutu maiteki eta bakez bicitceco; haur ukeiteco, eta hayen Gincoaren cerbutchian
 81 hazteco, eman nahi baiterie.
- G. Cer eguiten du Ezconcia Sacramentu?
- I. Ezconcen Diren bien hitcez, edo çonbait besté agueri den cegnharez Jaun
 Ord. 1667 Tit. 20 art. 10 Erretoraren, edo haren lekhukoaren, eta Laur iakileren aitcinian, algar senhar eta Emazte hartcen diela erraitiac.
- G. Cer çor derio senharrac emaztiari?
- I. Maitetarçun, fidelitate, eta urgaztia.
- G. Cer çor derio Emaztiac bere Senharrari?
- I. Maitetarçun berhala, fidelitate, ohore, eta haren manu pian bicitzia.
- G. Certatic da Sacramentu Ezconcia?
- I. Jesus-Christen, eta Eliçaren bartarçunaren cegnharia dela-coz.
- G. Nola adelatu behar da Ezconciala?
- I. Bere ascaci, adiskide, eta guehiener hartçaz eçagutce emanic, hirour Cridac eragunnic, hetaric Eliçaco Iavec soltha-tcen ezpadie: onsa ere Cofessa, eta Corpitz saintia errecevituric.
- 82 G. Cer adinetan ihor ezcont daite?
- I. Mithilcoac hamalaur ourthiac bethez gueroz, eta nescatilac hamabi bethe ondoan.
- G. Ihor ezcont daitia noreki nahi?
- I. Ez solthu ezpada; ez ere ascaci, ez aliatieki laur garren bel-haguian direno, eliçaco Javen solthura gabe. Ez eta lehen edo bi garrenian bekhatiac aliatu dutianac.

28. Igantian

HOGUEI ETA BAT GARREN CAPITULIA

Gincoaren hamar manien Enthelega Eracitia

Exodi 20. Math. 5 v. 19. Marci 10. 1 Uc. 18

- G. Conbat dira Gincoaren maniac?
- I. Hamar: 1. Ginco bakhoitz bat adora &c.
- 83 G. Erradaçu ceri gogoatu dugun Gincoaren manu bat bederatan?
- I. Jakin behar da manu batciec erraiten derikiela, cer eguin behar dugun; eta bestec cer etçcaicun sori.
- G. Conbat parte daduzca Gincoaren lehen Maniac?
- I. Biga: lehenian Gincoac eçagut eraciten dericu, bera dela goure eguiazco Jauna, guc adoratu, cerbutchatu, eta Gincoatan, bestiac oro utciric, eduki behar duguna. Bigarren partian manatcen gutu eztaguigula Idolaric, Nozpaico Paganoe, eta orano hayen goitia çonbaitec beçala.
- 84 G. Nolaco ciren Idolac, eta cer sinheste cien hetan?
- I. Imagina elibat, erran nahi da Guiçon, eta Emazté bere artian valiotaco ukhen çutienen uduriac urhez, cilarrez, çourez, harriz eta hanitz besté gaicaz; çoin erhoki eta uxutuki Ginco edukiten eta adoratcen baitçutien, eta çognec ahoetaric minço baitçaitcen Dee briac, Adoratcen ere cien Ekhia, Arguicagua, besté Içar elibat; Laur Elementiac Suya Airia, hora, eta Lurra. Orano berac abereturic hanitz Abere cuntenen uduriac adoratcen çutien, Egiptaco Erresuman Apis Idi belçaren uduria beçala.
- Tertu 1. G. Paradussuco saintien Imaginen Eliçan Edukitia, eta hen aitcinian belharicatcia othoitcen eguiteco, lehen manu honen contrè deya?
- Ap. contra gentes. I. Ez segur: ceren Christiec badakigu Imagina hoyec oihalez, çourez, edo harriz direla, eta hec berec eztelia bere baithan verthuteric ez indarric, gouri honki eguiteco: bena nola saintu eguiazcoez orhit eraciten, eta iratçartcen baicutie, hayen honquiguiner iarraigitera, hen uduriac ohoratcen dutugu, çoin ohore saintietara baitaroagu.
2. Conc. G. Gincoac eztianaz gueroz corpticic, Nola Trinitateco hirour personen uduria eguin ditake?
- Nicenum act. 3. I. Eztirogu Gincoaren içatia berartan goure corpitceco beguiez ikhous, bena bai hirour Personec gouri aguertereco, har- tu dutien moldiac eguin hala nola Aita Daniel Profetari
- Trid. 85 Sess. 25
- Math. 3. v. 16 Marc.

1. v. 10 aguertu baitçayon Guiçon çaharbat beçala kaideran iarriric;
 Js. 1 v. 32 Eracousteco haren çuhurtciaren eta bethierezco içatiaren: Se-
 Act 2 v. 3 mia guiçon beçala guiçon eguiñ denaz gueroz. Eta Espiritu
 Isai. 5 Saintia Ourço baten moldian hala Jesus Jaunaren batheyian
 Apos. 12 aguertu celacoz; Edo suzco mihi elibaten udurian, hala Pentocostez Apostolietara gin celacoz. Berhala eguiten dira Aingurien uduriac, aguertu diren moldetan.

29. Igantian

- G. Cer da Gincoaren adoratcia?
- I. Eçagutcia, hora dela ororen Creaçalia, eta guehiena, osoki ere haren manu pian bicitcia.
- G. Nola behar da Gincoa maithatu?
- I. Hontarçun, ohore, bici guciac galcera utci, lehenago eciz haren manic haux.
- G. Nor doa manu honen contre?
- I. Misterio guehienac Paterra, Creodoa eta Gincoaren maniac eztakitçana: Goiz arraxez Gincoa belharico othoitcen eztiania, ahal diroalaric. Eliçatic berheciac supersticiosac, azti, eta belhaguiiac.
- G. Heretico eta Eliçatic berheciac nola doatça honen contré.
- I. Fedebat, Leguebat, Eliça bat, eta Eliçaco guehien agueri den Javé bat baicic eztelaric, çoin baita Errumeco Aita Santia; hoyec ukhaturic fediarena eta Leguiaren bere anço, eta nahi dien beçala utçulciaz.
- G. Supersticios, eta aztiec nola edo certan houx eguiten die?
- I. Gincoac eta haren Eliçac ordenatu eta usatu dutien Ceremonia eta erremedioac aski hon ediren gabez eta her ez fidaz, hitz arce elibatez, Cetatchucuz, Cegnharazucaz, (Etciteyela Dee brien lagun içan) boustaurez, çonbait belharrez, edo khandera honenbeste pitzuz, Eriaren sendotcera, edo gaiça galdeien edireitera, çoignetan sartcen baita Dee briaren artecia aguerriz, edo eçavaki, besté orduz harekin norbaitec hitça harturic: Eta gaiçac beratçaz eztaidiana, edo gincoa ganic indar baten eguiteco hartu gabé, naturaz gaintiko gaijen eguitera iarten direnac Caractero izkiribatu çonbaitez, edo nola nahi.

30. Igantian

- G. Beelhaguiliac cer gente dira, eta nola houx eguiten die lehen maniaren contre?
- Delrio lib. 6 Sect. 3**
- I. Gente eta Espiritu apal elibat, çognec dioyenaz, arnegatcen baitie bere eguiazco Gincoa, eta batheyu saintian hartu dien fedia eta Jesus-Christen leguia; Aita ama, eta Eliçaco gaiça guciac: Eta guero hartcen die bere Jaun eta burçgui Deebria, adoratcen die, cerbutchatcen, eta harc nahi beçala, bera laguncen çayela, eguiten dutie gaizki ahalac oro, guciz haurretan,
- Levit 20 v. 27 Genes. 18 v. 3**
- aberetan, eta lurreco frutietan; halatan munduko gente gais-toenac dira Gincoaz eta legue oroz erre merechi dienac.
- G. Gincoaren lehen maniari oguen eguiten derieya, Paradussuco saintier edo Aingurier othoitcen hourac eta hayen Errelikiac ohoratcen dutienec ere?
- 4. Reg. 13. 2. 21. Job. 42 v. 7. 8. 9. 10 Jac. 5 v. 16 1. Tess. 3. v. 1 Tob. 12 v. 12. 15 Math. 18 v. 10 Ps. 90. v. 11**
- I. Ez batere: ceren hourac ohoratcen baititugu, Gincoac maite eta adiskide dutialacoz: Eta nola hon baita mundu hontako gente perestiec batac bestia Gincoari gomenda decen bere othoitcez, eta segur ordian eztiala oguen eguiten Jesus Jau-naren Carguiari, çoin baita gucien gagneco goure Ararte-goa. Agueri da, nola saintiec hobeki eçagutzen baitutie Ce-lutic goure galthroac eta beharrac, urgazten ahal gutiela eta arrerosten behar dutuguna, bethi Iesusen merechiez.

89 31. Igantian

HOGUEI ETA BI GARREN CAPITULIA

Bi garren maniaz

- G. Bi garren maniac cer nahi du?
- I. Gincoaren icena iura eztecala &c.
- G. Sori deya cin eguitia çoinbat orduz?
- Josue 7 v. 19**
- I. Cin eguitia, nola baita Gincoaren eçartia goure erranaren lekhuco, badakit cina egui behar dela ecin bestez, meñecina hartcen den beçala eguiaren egarteco, dakigunaz onsa orhituric lehiatu gabé, hertu ez emendatu gabé, ez ere ihori gaizkiric eguiteco.
- G. Cer da, auher Gincoaren iuratcia?
- I. Cucen, behar, eta arraço gabé iuratcia.

- 90 G. Bekhatu handi deya, cin gueçurrian eguitia?
- I. Bay hori da, Gincoaren, gueçurti eguin nahia, hartacoz eztaite parca penitencia handireki baicic, Eliçaco jaué guehienez ere.
 - G. Gincoaren arnegatcia, hari lotcia burutic, odoletic, passionate edo bestela, bekhatu handiac direya?
 - I. Bay hala ari dira Deebriac Ifernian.
 - G. Nor besteric doatça manu honen contré?
 - I. Gincoari edo genter cinez hitz emanac edukiten eztutienac, baita voto saintiac hausten dutienac.
 - G. Cin, arnegu, borhau gaiztoen uzteco, cer eguin behar da?
 - I. 1. Goiz oroz gogo har, ezkirela guehiago hetara eroriren, 2. çonbait penitencia igaranez guihauri eman, 3. Egar goure erranac hitz hoyez, hori hala duçu edo hori eztu hala, 5. Cofessa ardura, 6. Ihés eguin iokier eta Teherner.

91 32. Igantian

HOGUEI ETA HIROUR GARREN CAPITULIA

Hirour garren maniaz

- G. Hirour garren maniac cer nahi du?
- I. Igantiac beguira itçac & c.
 - G. Cergatic Gincoac manatu du Igantia?
 - I. Egun hontan Jesus goure Iauna hiletaric piztu celacoz.
 - G. Cer eguin behar da Iganten onsa beguiratceco?
 - I. Ençun Meça saintia, 2. ez lanic eguin, 3. ez hourac igaren corpitçaren alaguerancetan edo ian edanetan, guciz tehernetan, iocu edo dançan.
 - G. Ezteya sori ordian lanic batere eguitia behinere?
 - 92 I. Ez: hourac Gincoac devetatcen dutu lehia eta behar handian baicic Eliçaco Iaver ordian solthura galthaturic.
 - G. Cer eguin behar da egun hartan?
 - I. Goiçan ahalaz Parropia Meça ossoa devotki, ençun othoittcer onsa beha eta iarraiki predikier edo Catechimari, 2. Eguerdi ondoan ençun vezperac norc bere Parropian, alkharri onsa eguiten eracasteco, 3. Eguinaren gagnela eçar obra honetan uxartiac corpitçaren eta espiritiaren desakitcen sori diren gaicetan.

33. Igantian

HOGUEI ETA LAUR GARREN CAPITULIA

Laur garren maniaz

- G. Laur garren maniac cer nahi du?
 I. Aita ama ohora itcac &c.
 G. Gincoac cer manatcen derie haurrer?
 93 I. Laur gaiça, Aita amac maitha, ohora, sinhez eta urgatz ditcen.
 G. Haurrec behar dutieya sinhedi bere aita amac gaiçorotan?
 I. Bai, ezpadira Gincoaren, eta egun bidiaren contré hayen maniac.
 G. Nola urgatci behar dira?
 I. Corpitez eri, edo beharetan badira, ahalac heltu behar cayé; eta ariman bere penez consolatu; hilceracoan ere hayer sacramentiac eman eraci.
 G. Hil ondoan cer çor çayé Aita amér?
 I. Hayen azken ordegniac valia eraci, eta hentaco Gincoa othoi eraci.
 G. Aita améz cer orano enthelegatececo da?
 I. Halaber ohoratu eta obeditu behar dutugula gu beno çaharragoac, Eliça guiçonac, Cargutan direnac oro, hain Espiritualecoac, nola temporalecoac.
 G. Cerbutcharier cer çor derie bere burçaguiça.
 I. Maitetarçun, ohore, obediencia, eta fidelitatia.
 94 G. Manu haur onsa beguiraturen dienec, Cer sari dukeye?
 I. Gincoac mundu hontan, eta bestian benedicaturen dutu.
 G. Aita amec ezterieya cerbait ordari bere haurrer çor?
 I. Bay haci behar dutie, escola eraci gaztigatu, eta hayer onsa bicitzen bere eguite honez eracaxi.

34. Igantian

HOGUEI ETA BOST GARREN CAPITULIA

Bost garren maniaz.

- G. Bost garren maniac cer nahi du?
 I. Guiçon erhaile ez içala & c.

- G. Gincoac manu honçaz eztia devetatcen corpitçaren erhaitia baicic?
- 95 I. Honez ere devetatcen du heriotce espirituala, çoin eguiten baita bekhatiala aholcatciaz.
- G. Nola hausten da manu haur?
- I. 1. Gincoaz etsituric bere burian erhaitiaz, edo bere biciaren laburciaz çonbait gaizki eguitez.
2. Berartçaz, edo bestez lagunaren popatciaz edo hari gaizki eguitiaz.
3. Alkhar hastio ukheitiaz, bilhacaz, edo guducaz.
4. Bere exayeki baketu nahi gabiaz.
- G. Nola beguira daité manu haur?
- I. Onsa nahi, eta eguin gucier, baita goure exayer, Gincoari hala laket çayolacoz.
- G. Goure exayer arras parcatu behar derieguia; Eliçatia aski hayer gaizkirc ez eguin nahia?
- I. Cinez parcatu behar deriegu, Gincoac guihauri parca diçagun; guehiago ere honki eguin behar deriegu, hayeki minçatu, salutatu, eta hayer begui honez so eguin.
- G. Norc behar du exayaren ondoan ebili baketceco?
- 96 I. Gaizki eguin diala, bere baithan borogatcen dianac.

35. Igantian

HOGUEI ETA SEY GARREN CAPITULIA

Sey garren maniaz

- G. Sey garren maniac cer nahi du?
- I. Luxurious ez içala & c.
- G. Manu honec cer devetatcen dutu?
- I. Berartan edo bestetan gogo, hitz, eta eguite likhit/ guciac.
- G. Gogo likhitçac bekhatu mortal direya?
- I. Baybere nahiz hetan ihor laket denian.
- G. Besteri gogo theyureki soguitia gaizki deya?
- I. Bay mortal da, eta hori aski da goure bethicoz gal eraciteco.
- G. Chahu eztiren khantoren erraitia eta iracourtcia gaizki deya?
- 97 I. Bay hori da Gincoari oguen eguiteco bide aguerian iartia.
- G. Araguizco bekhatia handi deya?

- I. Bay: eci nola baikira Jesus-Christ goure Jaunaren partiac baita ere goure corpitçac Espiritu saintiaren onci biciac, hoyec theyutcen dutugu; eta ardurenic Gincoac bekhatu maradicatu haur gaztigatcen du bere açote garratcenéz.
- G. Honi ihés eguiteco, cer eguiñ behar da?
- I. Utci honen eretce pitzgarriac, eta emazten lagungoa; Norc bere beguiac apal eduki, hara hona ohiltu gabé; Ez iagoitic beha elhe theyu edo sobera navassier; Iraiz bethi honquite ahalque gabiac; Eta ez egon auher behinere.
- G. Bekhatu hontara erori direnec, cer eguiñ behar die, honen chahatceco?
- I. Ardura cofessatu ber cofessor jakinsu, çuhur, eta perestu batí; Ama Virginaren ukhen devocione berheci bat Eta çucen eguiñ lehenic Gincoaren iusticiari, guero bekhatore lagunari, merechi badu, gucia cofessorac manaturen dian beçala.
- 98 G. Nescatila Virgina, edo alhargun chahu bat guiçonac araguzco bekhatiala eragotci badu, ezconceco hitcen pian; Ez-contu ezpada lehenago, edo Gincoareki votoz estecatu; sortcepenez, edo içatez bardin edo arauzco badira biac, esposatu behar dia, ohoria evaxi derionaz gueroz?
- Exodi. 22.23
- I. Bay Gincoac, eta legue gucieci nahi die hora espousa deçan, baita orano berac emaztia dota deçan, Aita khechiac haur ukhatcen baderio bere alhabari.
- G. Guiçonac hitz eman ezpaderio espousaturen diala; solthu ezpada; edo içatez bardin, cer çor derio?
- I. Ordian demiareni pakhu, dote doibat eman behar derio guiçon perestien erraniala, eta haurric badie hourac haci.
- G. Sey garren manu honen beguiratceco, cer eguiñ behar da?
- 99 I. Nor bere elhetan, corpitçaren eguitetan, arropetan, eta ian edanetan doyaz bici, çuhur, eta gutiz igaran.

36. Igantian

HOGUEI ETA CAZPI GARREN CAPITULIA

Cazpi garren maniaz

- G. Cazpi garren maniac cer nahi du?
- I. Besteren hona evax ezteçala & c.
- G. Sori deya haurrer bere Aita amér evastia;

- I. Ez hori bekhatu handi da, guciz gaizki irailteco, eta behar eztirenetaco ichilic hartcen baderie.
- G. Gaizki hartia buhurtu behar deya?
- I. Bay auher da hartçaz cofessatcia, gaica eroana ossoki, edo eskietan ezpada, haren valioa buhurtzen ezpada.
- G. Evaxia ihorc buhur ezpadiro, cer eguin behar du.
- 100 I. Haren utçultceco ahal deçanian gutiena gogo hartu behar du, eta hara helceco bildu cerbait eguncal.
- G. Nori buhurtu behar da?
- I. Evax çayonari eçagutu bada, edo haren agueri diren çucen duner, bestela gaiçaren burçaguiarentaco eman amoinatan, edo harentaco.
- G. Gincoari othoitz eraguiteco.
- G. Noiz buhurtu behar da?
- I. Ahalic sarriena, ahalaz ere cofessatu beno lehen.
- G. Norc hausten die manu haur?
- I. 1. Besteren hona çucen gabé, eta harc nahi gabé hartzen dienec.
 2. Berhala hora gordatzen, edo bortchatzen dienec.
 3. Edirena buhurtu eztienec; Eliçatic, edo merkhatutic erran eraciten eztienec, haren burçaguiaren aguer eraciteco.
 4. Lukhurariec.
 5. İçarı chipieguiz, gaistoa honaren, edo kharioegui gaiçac salcen dutienec, eta guthun falsu egilec.
- 101 G. Bekhatu hontara ez erorteco, cer eguin behar da?
- I. 1. Gincoac eman dericunarekin igaran.
 2. Bestiac guihaur beçain onsa ikhoussi nahi.
 3. Gogoa eman, ohoinkeria oroz contu hersi bat eman behar dela, eta eztaitala ihor ioan Paradusialat besteren honareki.

37. Igantian

HOGUEI ETA CORTCI GARREN CAPITULIA

Cortci garren maniaz

- G. Cortci garren maniac cer nahi du?
- I. Iakile falsu eziçala &c.
- G. Ezteya iagoitic sori gueçur erraitia?

- I. Ez behinere, ez eta guiçon batibiciaren beguiratceco, edo mundu guciaren iravazteco.
- 102** G. Gueçurrez edo gaizki minçatcez besteri damu egun derionaz, ihora çucen egun behar derioa?
- I. Bay hotanet, nola ohorian.
- G. Gaizki bestez minçatcia bekhatu handi bat deya?
- I. Bay evastia beno gaistoago da, ohoria diharia beno haboro delacoz, eta gaitçago haren buhurtzia.
- G. Cer da gaizki mainçatcia?
- I. Gente baten ohoriaren contré cerbaiten erraitia, haren gaizki eçarteco.
- G. Gaizki errailer behatcian laket içatiac Gincoari oguen eguiten derioa?
- I. Bay Beraz erraitiaz beçala.
- G. Gaizki erranez gal eraci den ohoriaz çucen egun behar deya?
- I. Bau hoyez cofessaturic ere, bestela ihor eztaite salva.
- G. Nola buhurtu behar çayo nori bera ohoria?
- I. Christi lagunaren contré gaizki erranac ukhatuz, eta hartçaz ihor dakitçan hontarçun hon ororen irailiz.
- 103** G. Norbaitez gaizki erraiten ençutian, cer egun behar da?
- I. Ahalaz ichil eraci gaizki errailia; edo chotilki elhia utçul bestetara; edo so batez eçagut eraci hora gaitz çayola.
- G. Nola ihor beguira daite gueçurti içatetic, eta egua eztenaren erraitetic?
- I. Gogoa hartuz hourac Dee briaren bekhatiac beçalaco direla, çoin Gincoac bethiz gueroz hugu, eta borthizki gaztigatu baitutu.
- G. Eta gaizki erraitetic?
- I. Goure lagunaren maitez, eta peretchu handi baten harentaco ukheitiaz; haren eguite ororen alde honiala hartciaz, edo estaliz flakecia.

104 BIGARREN OURTHIAREN LEHEN IGANTIAN
HOGUEI ETA BEDERATCU GARREN CAPITULIA

Bederatçu eta hamar garren maniez

- G. Bederetçu eta hamar garren maniec cer nahi die?
- I. Araguizco obra onhex ezteçala ezconcez baicic Besteren honic nahi eztiala, edukiteco gaiztoki.

- G. Gincoaren maniac eztireya hausten eguitez, eta erraitez baicic.
 I. Hausten ere dira gogoaz, eta nahiaz.
 G. Gogo gaistoac oro bekhatu direya?
 I. Ez: goure nahiz ezpadira.
 G. Coin bideiscasz ihor erortzen da gogotic bekhatiala?
I. Jac.
14 v. 15
 I. Hirourez: gogo arhinetic edo aholcutic, laketcetic, eta boronthatiaren han eşartetic.
- 105** G. Cer da aholkia?
 I. Gaitçaren ikhousté arhina edo aipatcia, bekhatiala goure deitceco.
 G. Cer da laketcia?
 I. Aipatu çaiçun gaiçaren, eguiteco giten çaicun nahi cuntia.
 G. Cer da borontathiaren gaiçan eşartia?
 I. Hori da, boronthatiac onhexiric bere olez hartcen baitu, eta bere nahiz laketcen aipatu edo eskentu çayon gaiça gaistoan.
 G. Gogo gaistotan laketcian, çoin bekhatu ihor eguiten dutu?
 I. Gaizkiac berac eguiatan eguiten balutu beçalacoac.
 G. Cofessatcian aski deya erraitia, gogo gaistoac ukhen dutiala?
 I. Ez: orano erran behar da, çonbat eta nolaco içan diren gogoac; theyu cirenez, eta noreki; hugunkeria, ieloskeria, mendecu, edo ohoinkeriazco cirenez, eta çonbatetan &c.
106 G. Nola ihor beguira daite gogo gaistoetaric?
 I. Orhituz Gincoaren aitcinian guirela, çognec ikhousten baitutu goure bihotcen barniac; biciki iratçarriric egon goure sendimentien gagnen; onsa beguira beguiac eta beharriac; ez auher egon, bena çonbait honqui eguin.
 G. Nola goith ditçakegu besteren honaren atçaman nahiaren, eta haren hastio ukheitiaren gogoac?
 I. Goure lagunac, guc beçanbat hontarçun dian, alagueraki nahiz, Gincoari hala laket çayolacoz.

2. Igantian

HOGUEI ETA HAMAR GARREN CAPITULIA

Eliçaco maniez eta Escumukiaz

Math. 18 v. 17

- G. Conbat dira Eliçaco Maniac?
 I. Cazpi: 1. Igantez Meça ençun eşac, eta Besta manatiez devotki.

- ¹⁰⁷ G. Norc hausten du manu haur?
- I. Meça ossoki ençuten eztianac; Aita améc, Burçagui burçaguissec bere haur eta cerbutcharier ahalaz erançuten eztienec.
 - G. Meçan algarreki elhestariec bekhatu eguiten dieya?
 - I. Bay handiki, eci Gincoa desohoratcen die, eta ez Meça sain-tia behar beçala ençuten.
 - I. Eliçatic hurrenché direnec, meça ecin ençuten dienian Etcheçain egon beharrez, cer eguin behar die?
 - I. Bere artian aldizca hontara gin; Eta etchen, aldirietan, edo bortian abelçain diratianian, Iganté eta Bestez Parropia Meça gutientaco Erraiten den orduchiari, Gincoa othoitu belharico orenac edo conderac eskian, eta Jerus-Christ Jau-naz batbederaren eguiten den sacrificioa gogoaz laguntu ha-ren merechiez Gincoareki baketceco. Halaber eguerdi ondo hetan vezperen orduchiari berritu othoitciac, ginen diren egunetan Gincoaren hobeki cerbutchatceco.
- ¹⁰⁸ G. Aski deya bethi Igantez, edo aldizco Meça apal baten ençutia?
- I. Ez; batbederac, eriz edo ecinez baratcen ezpada, Parropia Meça ençun behardu hirour Igantetaric batez, escumucuren penan.

3. Igantian

- Ord. de 1
Pass.
Gen. du
Cler.
France
anno
1645
art. 5
anno
1655
art. 5
- G. Erraçu bi garren Eliçaco mania?
- I. Hire bekhatiac oro cofessa itçac ourthian behin gutiena.
 - G. Norc hausten du mortalki manu haur?
 - I. Ourthian behin Bazcocari berantena Jaun Erretorari, edo haren lekhucoer, edo hari permissione galthaturic, besté co-fessor bati cofessatu eztatianac, eta hori escumucuren penan.
 - G. Aski deya ourthiá behin cofessatcia?
 - I. Bay Eliçaco maniaren beguiratceco; orotratrete ihor errori baliz bekhatu mortaliala, laster cofessatu behar luke, Cor-pitz saintiaren onsa hartceco; berhala eri denian, edo besté hil beldurretan: besta handiez orano hon da cofessatçia, bere conciarien chahu edukiteco.
 - G. Erraçu Eliçaco hirour garren mania?
 - I. Ore Creaçalia errecevi eçac berantena Bazcoz umilki.

- G. Norc hausten du manu haur?
- I. Bazcocari norc bere Parropian, edo Jaun Erretoraren nahia-reki bestetan errecevitcen eztianac, eta hori Escumucuren penan.

4. Igantian

- G. Erraçu Eliçaco laur garren mania?
- I. Eliçac manatu Bestac beguira itçac leyalki.
- 110 G. Norc hausten du manu haur?
- I. Bestez languiten ari denac, merechian Gincoa hetan onsa cerbutchatu, ikhassi saintien verthutiac, her iarraikiteco; othoitu, officio saintietara ioan, eta besté obra honetan ediren Igantez beçala, utcircic ioco gaistoac, tehernac, eta dança.
- G. Erraçu bost garren mania?
- I. Laur temporac, Vigiliac, eta Goroçuma barour itçac ossoki.
- G. Norc hausten du manu haur mortalki?
- I. Hoguei eta bat ourthe ardiexiz gueroz, Goroçuma oro Igantiac salbu; ourtheco laur temporén astizken, ostirale, eta neskenegunac, eta eliçaz manatu besté egunac barourtzen eztutianac, ahal ditçakialaric; eta horic oro goure bekhatiez penitencia eguiteco; Jesus Jaunac berroguey egunez egudian barouraren ohoratceco; Gincoac benedica ditçan ourtheco laur sasoac, eta eliçari Apéz perestiac plazer ditçan eman.
- G. Norc eztu bekhatu eguiten barour hoyec ez eguna gatic?
- 111 I. Hirouroguey ourthé dienec, Emazté içorrec, unhudéc, Eriec, prauvé apairu baten aski hazcurre eztienec, eta indarcaz lan borthitcetan biçi denac.
- G. Nola behar da barourtu?
- I. Eguerdi artio ez deus ian ez edan, etan arraxen igaran guti-reki.

5. Igantian

- G. Erraçu Eliçaco sey garren mania?
- I. Ostiralian ez neskenegunian ezteçala ian araguiric.
- G. Norc hausten du manu haur, eta cergatic da?

- I. Eri ezpadira, bi egun hoyetan aragui ialec, Eguberri
Besta hetan helcen ezpada; Eta ordian araguic eztugu ia-
ten, Jesus-Crist goure Jaunaren hilciaren eta ehortziaren
ohoretan.
- G. Erraçu çazpi garren mania?
- ¹¹² I. Tempora devetatiez eztaguala ezteyic, eta Detchema Primiciac
paca itçac chuchenki.
- G. Noiz dira devetu Ezteyac?
- I. Adventu lehen Igantetic, Aparicio çoin baita hirour Erre-
guen Besta; Eta Hausteric Bazco çaharra igaran artio. Ala-
bena orduhetan sori da Epousatcia lagun gutireki, beste
temporéz beçala; bena orduco devetia da, Apeçac Meça
urhencian emaiten dian benedicione solemnela, baita Ez-
teyetan eguiten diren herox, sonu, dança alaguerancia eta
sobera ian edatiac, çoin ezpailirate onsa, Eliça saintac
ordu hetan goure bekhatiez penitencia eraguin nahi deri-
culacoz.

6. Igantian

- G. Norc eztutu pacatcen chuchenki Detchema Primiciac?
- ¹¹³ I. Hourac evasten, hertcen, bortchatcen, eta gaistoenetik egui-
ten dutienec, Gincoac eta legue gucieci Eliçaco Artçagner,
edo hen lekhukoer eman deritcen hazcurre eta çucenac dire-
laric.
- G. Sori deya Detchema Primiciac eguin beno lehen, frutietaric
languilen pacatcia, eta aciaren cerbait berheztia.
- I. Ez legue gucieci nahi die, Gincoari eta haren lekhukoer,
çucen hoyec borogu orotaric chahu eta osso eman dakitcen;
guero Norc beretic çorrac pacá ditcan.
- G. Eliçac manu hoyec oro eguin ahal derizkia?
- I. Bay duda gabé; ceren Gincoac Amataco haur eman baiteri-
cu; Eta ordenatu Eliça sinhexiren eztiana maradicatu dela,
eta igaran dadin Pagano eta escumucatu baten: ororen bu-
rian ere Eliçaco maniec Gincoarenen hobeki beguiratcera
hel eraciten baicutie.
- ^{Math. 18 v. 19.} G. Aski deya Gincoaren eta Eliçaco manien iakitia?
- I. Ez: beguiratu ere behar dira onsa.
- G. Guihauren indarrez eguin ditiroguia?
- ¹¹⁴ ^{Phil. 4 v. 13} I. Ez Gincoaren gracia gabe, çoin bethi adelaturic baitago,
gouri haren emaiteco, galthatcen baderiogu behar beçala.

- G. Cer sari hitz eman du Gincoac haren manu saintu ororen beguiracaler?
- I. Paradussia, non bethicoz dohaxu baitirate.
- G. Hourac hauxe dutukienec cer gaztigu dukeye?
- I. Bicitce hontan gaizki dirate, eta Iferniala eroriren, non Gincoa galdu, Deebleki bethi erreren baitira: hari ihés egui-teco, guitian oren oroz onsa bici.

7. Igantian

- Math. 16 v. 19**
- G. Cer da Escumukia?
- I. Sentencia bat, coinçaz Eliçaco Jugéc, eta leguec gaztigatcen baitutie bekhatu guisa elibaten eguiac; hayen manien hauxliac, eta egua ukhatcen dienac, aithortu behar lukeyenian, Nori bere hon edo ohoriaren beguiratceco, edo galdu dianian buhur eraciteco.
- 115**
- G. Escumukiak cer gaitz eretchekiten derio Christiari?
- I. Gincoaren haurretari berheztia, eta Eliçaco hon espiritualen galcia.
- G. Cergatic dioçu Escumukia dela behezte bat?
- I. Ceren escumucatia berheci baita Eliçaco honen partaletarrunetik membro hirotia corpitcetic beçala.
- G. Escumucatiec cer hon galcen die?
- 1. Cor. 5 v. 3.**
- I. 1. Eliçan sartzia, 2. Meça saintiaren ençutia, 3. Sacramentien hartzia, 4. parte ukheitia Eliçaco othoitcetan, Ostirale saintian Salbu, 5. Saintien merechietan, 6. Indulgencietan, 7. bere Aita espiritualen guidamentietan, 8. Lur saintian ehorztia, 9. Escumucatia Eliçatic icentatu bada, devetu da hari minçatzia, hareki iate eta edatia, egoitia eta gagnelaco navastarriac Escumucuren penan, 10. hartan hil ba dité, hayen arimac Deebleki utci dira, bethicoz Ifernian erratceco.
- 116**
- G. Escumucatiac parcamentiaren ukheiteco, cer egui behar du?
- I. 1. Escumuca eraci dian bekhatiaz dolu hartu, 2. hartçaz çucen egui edo eman bermé honbat, 3. hitz eman eztela aitcinera ber bekhatiala eroriren, 4. ukhen parcamentia ahal dian Apeça ganic, har eztiki harc emanen derion penitencia, eta bertan egui.

8. Igantian

HOGUEI ETA HAMECA GARREN CAPITULIA

Parropia Meçaz, Hour eta ogui benedicatiez, ohereskiez eta Inchensatciaz.

- 117 G. Cergatic eliçac manatu du escumucuren penan, hirour Igantetaric batez Parropia meçaren ençutia; Eta hora, besté meça batcien erraiten direnac beno hobe deya?

- Conc. Trid. I. I. Bay: ceren ardiec bere artçagna eçagutu behar baitie; oroc algarreki hartan Gincoari Jesus Jaunaz ber sacrificioa eta othoitciac eguin; ençun Pronoa, çoin diratian asteco Bestac, barourac, escumukiac, ezconcen cridac, gagnelaco ere ikhassi behar direnac çoin hontarçun ezpaitira oro edireiten besté Mecetan, hartacoz Meça guehiena hobe da.
- Sess. 24 c. 4 Ord. de l'Ass. Gen. du Clergé de Fr. anno 1645. art. 3 1654 art. 6 11 18 Pape Alex. Ep. ad Ortod. Num. 19 I. Cergaitic Christiac Apostoliez gueroz, hour benedicatiareki cegnhatcen dira othoitcen haxarrian, eta eliçala sar elkhiteitan?
- I. Ceren Gincoa maite badugu hour benedicatiaren verthutiazbekhatu venialac parcatcen baiterizcu, eta harçaz ohilcen baitugu espiritu gaistoa, goure othoitcetan nahas ezkitçan, eta charmeriac hausten baitutu.
- G. Cergatic Apeçac egoizten du hour benedicatia populiari, Parropia Meçaren haxarrian eguiten dian Processionian?
- 118 Capit. ce Charl. lib. 5 art. 220 I. Haren orhit eraciteco batheyu saintian batbederac errecevitu dian graciæ; eta eracousteco, munduco eguitecoac iraiciriæ, concencia chahu bat ukhen behar diala, meçaco Sacrificiotic goço hartceco.

9. Igantian

- Pape Pie I G. Ogui benedicatia ceren da?
- G. Egun honen santificatceco eta Gincoari emaiteco, cer eguin behar da?
- I. Hontan eguin obra onac.
- G. Çoin da egun saintu hontan eguin beharrago duguna?
- I. Meça saintiaren ençutia.
- G. Çoin Meça ençutecoago dugu?
- I. Norc beré Parropiacoa, lehen eliçaco maniaren arau.
- G. Cergatic hobé da Parropia Meçaren ençutia, besté bat beno lehen?
- 11 I. Ceren Parropia Meçala bilcen baitira lekhuco Gincoaren haurrac çointan Pronoa eguiten baita.
- G. Cer da Pronoa?
- I. Pronoac bi gaiça guehien daduzca.
- G. Çoin dira?
- I. Lehena da Gincoaz manatu den othoitcia, eliçaco gucien, honen Artçain, Princé, eri, desditchatu, eta haur beharretan diren ororentaco.

- G. Othoitz haur Gincoari laket çayoya?
- I. Bay, guciz algarreki Artçagnaz eta ardi bildu honez oroz eguiten denian.
- G. Çoin da Pronoaren bi garren parté guehien?
- I. Errerorac honi iarrai eraciten deritçon arguiac.
- G. Artçagnac beré ardier emaiten deritcen escolac Gincoari laketago çaitçoya, eciz atcenac.
- I. Bay, ceren arimen hachia egari behar dianarena baitira.
- G. Cergatic orano?
- 12 I. Ceren haur baita Eliçac manatu, eta guehiago, gomendatu diana: hontan eré haren maniac, Bestac, barourac, eta besté Gincoaren cerbutchucoac eracasten baitira.
- G. Parropia Meçac badia orano cerbait Gincoari laketago çayonic?
- I. Bay.
- G. Eta Cergatic; ezteya ber Jesus-Christ Jauna bardin Meça orotan Gincoari oherescatzen.
- I. Haur egua da: bena Parropia Meça guehiago da, hontara Christi gucien batciaz.
- G. Cer du honec hoberic?
- I. Gincoari algarreki othoitzen eskencia, arthelin gagnen eçari denaren ahoaz.
- G. Parropia Elicéc cer besté hontarçun dié?
- I. Hoyer dira ikhastiaren eta Sacrementien uthurriac, non edi-reiten baitira Catechimaren eznia, batheyatcia, Crisma eta olio Saintiac, eta ourthechal Bazcoa eguiten.
- G. Cer da haboro Parropia elicetan?
- I. Christien ehortzia ber Ilherrian.
- G. Horiec oroc cer eguiten dié Christien battarçunian?
- 13 I. Haur da algarreki arrasortzia batheyiaz; ber uthurritic iakin beharren, eta Sacrementien hartzia, eta hiletaric pitciaren ugurukitia.
- G. Onsa ari deya, Norc beré hirico Eliçaren edertceco, cerbait emaiten Diana?
- I. Bay Christiac hetara ioaitera Dei ditcen hobeki, hartacoz hourac chahu, argui, eta althariac eder eta ahalaz ohoratu uduki behar dutie.

14 3. Igantian

HIROUR GARREN CAPITULIA

*Jesus-Christ goure Jaunaren bestez, eta eliçaz haren
misterio eracasten derizcunêz.*

Aventuco lehen Igantiaren aitcinian erraiteco.

G. Coin da daigun Igantia?

I. Aventuco lehen Igantia.

G. Cer deitcen duçu Aventia?

I. Tempôra, çointan eliça orhitcen baita Jesus Jaun ugurukia-ren mundu hontara gitiaz.

G. Tempôra saintu hontan cer daravila gogoan?

15 I. Gouré aitcinecoen nahiak, çognec hasperenez galthatcen baitcien Messia gin ladin.

G. Cer deitcen duçu Messia?

I. Christ, edo Jaunaz berecatia, çoin sacratu baitu beré Ginco-tarçunaren barneco indarraz.

G. Eliçac cer du guehiago gogoan Jesus-Christen giten gagnen?

I. Orano Jondané Johané Batistaren predicatcia, çognez bi-diac adelatcen bainteritço.

G. Nola bidia adelatcen derio?

I. Penitenciaz

G. Eliçac ezcutia eré gouré Salvaçaliaren azken gitiaz orhit era-citen?

I. Bay, ordian gineñ da bicien eta hilen jujatcera.

G. Cergatic minço da bi garren ginguey honçaz?

I. Amorecatic, haren lehen gitiac çuhurtcen ezpagutu, çointan Jesusec gracia ekhartent baintericu; berdur guiren haren jus-ticia boroga eraciren dericunaren.

G. Gincoaren justicia garratçaren loxeriac certara eroan behar gutu?

16 I. Haren saintuki maithatcera.

G. Cer ikhassi behar dugu Escola hontaric?

I. Jesus-Christen nahi ukheitia, eta honi penitenciaz bihotcen adelatcia.

4. Igantian

LAUR GARREN CAPITULIA

Eguberriren aitcineco Igantian, Bestan berian, eta ondokoetan erraiteco

- G. Coin Besta ohoratcen dugu daigun egu?
- I. Eguberri.
- G. Cer erran nahi du Eguberric?
- I. Jesus-Christ mundu hontan sorthu den egun saintia.
- 17 G. Haren Ama nor içan da?
- I. Maria bethi Virgina.
- G. Cer dio honen bethi Virgina içatiac?
- I. Virgina cela erdi beno lehen; Virgina erdcian; Virgina erdi ondoan.
- G. Cergatic eguberriren vezpera gaya, bestiac oro beno ohora-tiago baratu da?
- I. Jesus-Christen gayaz sorthu içan nahiaren orhitçarretan.
- G. Cergatic sorthu da gayaz?
- I. Eracousteco haren gin aitcinian mundian ulhunpia cela.
- G. Besta honec cer du berhecircic besté ororen artian?
- I. Ceren hontan hirour Meça erraiten baitira; bata gaiherditan; bestia arguitcian; herena besté ordietaco orenian.
- G. Ceri gogoa eman behar da gaiherdico Meçan?
- I. Orhitu behar da Jesus-Christ barruki batetan sorthu dela, esta eçari aberen jantegui batetan.
- G. Noiz itchoura hontan guciz soquin behar deriogu?
- 18 I. Apeçac haren corpitz adoragarria hitz sacramentalez altha-ren gagnen eşarten dianian, altharia eduki behar da jantegui hora beçala, eta Jesus-Christ adoratu.
- G. Cer eguin behar da bi garren Meçan?
- I. Ginco haurra adoratu artçagneki, çogni Ainguriac erran baitcerien haren sor berria.
- G. Cerc artçain saintu hoyec deithu çutian gouré Salvaçaliaren sor lekhiala?
- I. Celuco Musica, eta cantoré alaguera batec.
- G. Coin cantorec?
- I. Eliçari hain ardura Meçan erraitera laket çayonac, eta çoin eguberriz boztario handiago bateki cantatu behar baita.
- G. Coin da haur?
- I. Gloria in excelsis; çognec baitio, Gincoaren biz gloria lekhu gorenetañ, eta lurrian bakia eman bedi boronthaté hon die-ner.

- G. Heren Meçan ceri gogoa eman behar da?
- 19 I. Ama Virginac mundu hontan sorthu dian Haur hori, bethi danic Gincoaren semia dela.
- G. Gincoaren semia, eta Mariaren semia ber Persona deya?
- I. Bay; ber Persona da guiçon eguiazco, eta Ginco hontarçun oroz bethébat.
- G. Cer erran nahi da guiçon eguiazco içatia?
- I. Guc beçalaco corpitz eta arima baten ukheitia, eta gouré uduriala eguina, bekhatia salbu.
- G. Cergatic haurtu içan nahi da?
- I. Gouré flakecia gucion egarteko, eta onsa maithatu içateco.
- G. Jesus Christ sorthu deya behardun eta nekeçu?
- I. Bay duda gabé, barruki batetan sorthu denaz gueroz, tempôra borthitz batetan, khugnabat ohatceco ukhen gabé.
- G. Cergatic?
- I. Gabeciaren, eta gaitz egarten gouri eracasteco.
- G. Cer ohoré gouré Salvaçaliaren eguité eta verthuté çor deriegu?
- 20 I. Her iarraigitia.
- G. Nola gabeciari iarraigiren guira?
- I. Maithatcez gente beharrac, eta ez gaiçac eçar auherretan, lehenago hourac eman eztienier.
- G. Eta Besta hontan nola behar dugu iarraiki Jesus Christec egari dutian nekecier?
- I. Herabé gabé; ez hotça gatic eré houxic eguin ioaitera haren cerbutchu saintietara.
- G. Nola adelatu behar dugu Besta hontara?
- I. Confessioné hon batez onsa chahaturic, su gorri bateki Jesus Jauna harturic, hari Judiec eguin etcerien beno batçarré hobiagoreki.

21 5. Igantian

BOST GARREN CAPITULIA

Circoncisioniare Bestaz, eta ourthavez.

- G. Coin Besta dugu daigun Eg.?
- I. Circoncisioniare Besta.
- G. Legué çaharreco sacramentu bat, çognec sartcia emaiten baitcian Gincoaren Populiaren artiala, orai Batheyiac Eliçala sar eraciten gutian beçala.

- G. Circoncisionia nori eman içan da?
- I. Abrahami; Gincoac hareki eta haren ondokoeki Aliança eguin cianaren cegnharetan.
- G. Circoncisioniac cer berheciki cegnharatcen cian?
- I. Genté gucien çagna theyu cela.
- G. Nola theyu?
- 22 I. Bekhatu originalaz.
- G. Cergatic Jesus-Christec saintu celaric, Circoncisionia hartu nahi ukhen du?
- I. Eracousteco gouré bekhatien gaztiguaren egartera, eta hen chahatcera, gin cela.
- G. Cergatic Jesus-Christ hassi da haurçaroan beré odolaren is-sourtcen?
- I. Eracousteco, beré odolaz gouré ukhuztera gin çaicula.
- G. Egun harten cer eguin cien orano?
- I. Jesus icena Gincoaren semiari eman cerien.
- G. Jesus icen honec cer dio?
- I. Salvaçalia erran nahi du, eta Gincoaren semiari eman çayo, ceren gouré bekhatietaric idokiten baicutu.
- G. Jesus icenac cer ohoré merechi du?
- I. Etçayo aski ohoré emaiten ahal, Icen handi honen ençuliac oro Paradussian, lurrian, eta Ifernian belharicatcen dineraz gueroz. Philip. ij. v. 10.
- 23 G. Gouré Savaçaliaren Circoncisioniac cer eracasten dericu?
- I. Gouré bihotçaren ebakitia, diot nahi gaistoen mouztia, guciz gouré sedimentien sentherietara dutugun erortokien.
- G. Besta hontan cer eguin behar da?
- I. Daigun ourthia oro Gincoari oherescatu, eta haur orhoi, haren cerbutchian igaran deçagun.

6. Igantian

SEY GARREN CAPITULIA APARICIOREN AITCINECO IGANTIAN,

Besta hontan eré erraiteco

- G. Cergatic daigun Egu. Besta hain handibat dugu?
- I. Aparicio delacoz.

- 24 G. Cer deitcen duçu Aparicio?
 I. Jesus-Christ gouré Jaunaren aguer eracitia.
 G. Cergatic Besta horri icen ederbat eman derié?
 I. Ceren Eliçac hortan hirour misterio handi ohoratcen baitu-
 tu, çognec Jesusen goratarçuna eracoux eraci baitié.
 G. Coin dira horic?
 I. Hirour Erregué çuhurren adoracionia: Jesus-Christen ba-
 theyatu içatia Jondané Johané Batistaz: eta haren lehen mi-
 raculia, houretic mahaxano egun cianian Canâco ezteyetan,
 Galileaco herrian.
 G. Cer ciren hirour Magé deithu hourac?
 I. Hirour Jaun handi içarren onsa eçagutçalé ekhia iaikiten
 den herrian çaudianac, çoin erregué deithu baitira.
 G. Hourac etciren beraz Gincoaren Populucoetaric?
 I. Ez: Pagano ciren.
 G. Cergatic Gincoac beré semiaren adoratcera deithu çutian?
 25 I. Eracousteco; ordu hartan Paganoec haren eçagutcia behar
 ciela.
 G. Nola Jesus cen eretciala hel eraci çutian?
 I. İçar batez.
 G. Non ikhassi cien Profecien arau Jesusec Betleemen içan be-
 har ciala?
 I. Jerusalemeco hirian, çointan baitçagoan ordian guehienki
 eguiazco Eliça.
 G. Hirour erreguec cer egun cien Jesus haurra ediren cienian?
 I. Adoratu cien, eta hari oherescatu Urhé, Inchensu, eta Mi-
 rra.
 G. Cergatic hirour dohain horic?
 I. Erregué batı beçala Urhé eman cerien. Ginco beçala Inchensu;
 eta/guiçon beçala Mirra, honen egun batez ehortci behar
 gueyaren ohoratceco.
 G. Judioac eré gin cirena haren adoratcera?
 I. Ez: eta hora cen hayen uxueri gueyaren cegnharébat.
 G. Baya Herodes Jerusalemeco erregua?
 26 I. Honec aleguia egun cian hora adoratu nahi ciala, bena
 etcian gogoan Jesusen salha eraci nahia baicik, haren hil
 eraciteco.
 G. Herodes cer uduri da?
 I. Ipocritac, çognec Jesus adoratu nahi diela urupen eguiten
 baitié bena hora bereyetan eçaba curutchian berriz itçatcen
 dié eguité gaitcez.
 G. Besta hortaric goço hartceco, cer egun behar da?
 I. Jesus Jauna gana hel eraciten gutian içarrari bethi iarrai, diot
 haren ciaren deitciari.

- G. Eta orano cer besteri?
- I. Sobera jan eta edatiaren lekhutan, hari eguin merechi dutian ohereskiac.
- G. Nola?
- I. Behar gachoen eretcian, hoyer honki eguitez.

27 7. Igantian

ÇAZPI GARREN CAPITULIA

APARICIO ONDOCO IGANTECO,

*Jesus-Christen batheyun gagnen; Eta hourez mahaxano
eguinaz*

- G. Erran cenericun igaran Eguna Erregueren adoracionia beno lehen, Eliçac orano ohoratcen çutiala besté bi mysterio, çointan Jesus-Christen indarra agueri baitcen, çoin dira hoyec?
- I. Bata da Jesus Jaunaren batheyatu içatia.
- G. Cer adin cian batheyatu içan cenian?
- I. Hoguei eta hamar ourtheren ungurunia.
- G. Norc batheyatu cian?
- I. Jondané Johané batistac.
- 28 G. Batheyiac cer cegnharatcen cian?**
- I. Penitencia, eta bekhatien parcamentia erran nahi cian.
- G. Jesus-Christec batheyatu beharra ciana?
- I. Ez; hora saintutarçuna bera cenaz gueroz.
- G. Cergatic beraz batheyatu nahi içan da?
- I. Bekhatiaren itchouraren ekharteco çognen chahatcera giten baitcen.
- G. Cergatic orano?
- I. Batheyiareñ eçarteco eta saintificatceco.
- G. Cer heltu cen Jesus Christen batheyian ohoraxiagoric?
- I. Gagneco minço bat çognec baitcioan, haur da ené semé maitia, çointan onsa laketu bainiz.
- G. Cer igaran cen guehiago ordian?
- I. Espiritu saintia jaixi cen Jesus Christen gagna, Ourço baten udurian.
- G. Cergatic hala?
- I. Jesus Christen emetarçunaren eracousteco.

- G. Gaiça hoyéc oroc cer cegnharatcen cien?
- 29 I. Batheyian: Gincoatan diren hirour Personen battarçuna, eta aguertcia.
- G. Nola hori?
- I. Aita agueri da minçatcian; semia berartan; Eta Espiritu saintia Ourçoaren udurian.
- G. Coin da orhitcen çaicun besté miraculia?
- I. Hourez Mahaxano eguitia Canaco ezteyetan, Galileaco herrian.
- G. Houraren mahaxanoala utçulcé honec cer cegnharatcen cian?
- I. Erran nahi cian Moysaren leguiaren utçulcia gouré Evangelio saintiala.
- G. Cer beraz cegnharatcen cian mahaxanoac?
- I. Gincoaren haurrec Jesus-Christen graciatic giten çayen ala-guerancia Espiritualala, eta gar saintia.
- G. Miraculu honec nola aguer eraci cian Jesus Christ?
- I. Ceren haur baitcen haren lehen miraculia, eta ordian haren Discipuliec hartan sinhesté hartu baitcien, Jondané Johane-ren Evangalioac dioan beçala.
- 30 G. Hanbat gaiça miragarriren ohorateco, cer eguin behar da?
- I. Orhitu gouré batheyiaz, eta hartan Gincoari hitz emanac berritu.
- G. Nola hori?
- I. Berriz hitz emaitez gogohonez Jesus-Christetan sinhesté osso bat ukhen nahi dugula.
- G. Eta cer guehiago?
- I. Munduco gora behera guciac uzten dutugula, bicitcé gais-toac, eta gagnelaco Débriaren aholkiac.

31 8. 9. eta 10. Igantian

ÇORTCI GARREN CAPITULIA

JESUS-CHRISTEN BICITCE ESTALIAZ BERE AMA
VIRGINA, ETA JOSEF SAINTIEKI APARICIOREN
ONDOCO BIGARREN, HEREN,

Eta laur Igantetan erraiteco, hanitz merechi dialacoz.

- G. Erran itçagutçu Jesus Christen bici haxarrian aguertu ciren gaiça miragarriac?

- 32 I. Ainguriec haren sortciaz Gincoari esker handiac eman ceritcen; Artçagnac gin ciren khugnala, haren adoratcera; Erre-guéc hara ekharri ceritcen berê ikhous garri ederrac; Eta Eliçala eroan cienian, Simeon eta Anna alhargun saintiec hora maiteki eçagutu eta ohoratu cien.
- G. Cer guero heltu cen?
- I. Han hassi ciren haren desditchac eta haren ascaciac bortchatu içan ciren haren eroaitera Egiptarat.
- G. Cergatic?
- I. Herodes khechiaren ihessi, çognec hil eraci nahi baitcian.
- G. Cergatic Gincoaren haur honec khugnatic hassi behar cian hala gaitz hartcen?
- I. Ceren curutchia baitcen haren siraxa.
- G. Herodesen gaiski eguin nahiak nola jakin çutien?
- I. Ainguru batec hourac salhatu ceritçon Josef saintiari amex batetan eta hora manatu cian, Herodesen eskietaric itçour ladin Egiptarat.
- G. Eta cer, Gincō haur honec beré ascacier etcerien beraz gaitz baitcic eretchekiten?
- 33 I. Maité dutianac beré curutchiaren egarlé lagun nahi dutu.
- G. Noiz utçuli cen Egiptaric?
- I. Herodesen hil ondoan, Ainguriac Josef saintia manatu cian, Israeleco herrialat hora arrekhar leçan.
- G. Egon cena Judean?
- I. Ez; loxaz Archelaüs Herodesen semiaren, çognec haren eretcialat beré aitaren gogo gaistoa beguiratu baitcian.
- G. Haur honec beraz bethi exayac ukhen çutian?
- I. Bay eta exay handiac, eta Erreguiac.
- G. Non egon cen?
- I. Nazaret Galileaco burguian beré ascacieki.
- G. Lehen tempôra hayez gueroz etciana deüsec jakin eraci Jesus Christen gitia?
- I. Ez batec eré, hamabi ourthé çutukiano.
- G. Adin hortan cer heltu çayon?
- 34 I. Jerusalemera joanic Bestaren ohoratcera Mariareki eta Josef beré hatçaliareki, itçouri çayen aitcinetic çoin guero Eliçan ediren baitcien.
- G. Cer ari cen han?
- I. Jarriric çagoan Jakinsien erdian, her beha eta galthoz: haren çuhurciac eta ihardesté ederréc guiac icitcen çutiela.
- G. Hitz hoýec certçaz orhit eraciten çutié?
- I. Jesus-Christ han ari cen beçala, haurréc eré gouré Elicetan Catechima onsa erran behar diela, Jakinsier beha, batac bestiari galtha, eta ihardex.

- G. Cergatic beraz Jesus Jakinsien erdian jarritic çagoan?
- I. Ceren eguiaz hen burçaguias baitcen, çonbateré ezpaítcian orano beré ahal gucia eracousten.
- G. Cergatic Jesusec hamabi ourthetan aguer eraci nahi ukhen cian beré çuhurcia?
- I. Eracousteco, ordian drano eçaba eta gordez bici nahi içan cela; hala nahi içan celacoz.
- G. Conbat egon cen eçaba?
- 35 I. Hoguey eta hamar ourtheren ungarunia çutukiano, eta hou-
ra Jondané batistac batheya artio.
- G. Hara drano ihourc cer çakian hartçaz?
- I. Deuseré, baicik adinetan aitcina, çöeno beré çuhurcia bethi guehiago eracousten ciala.
- G. Cer da orano Jesus-Christez izkiribaturic?
- I. Beré Aita eta Amén maniac onsa beguiratcen çutiala.
- G. Eta cer orano?
- I. Josef saintiareki languiten ari cela, eta officalé baten eduki-
ten ciela.
- G. Cer officio eguiten cian?
- I. Mayasturugoa.
- G. Hala Ginco batec merechi ciana bici?
- I. Bay, genté guiac escolatcen dutianaz gueroz.
- G. Horrec cer eracasten derié?
- I. Gincoac cerbaitetara deitcen gutianian baicik ez aguertcia:
gagnelan bicitce, nekeçu, estali, eta behera bati jarraikitia.
- 36 G. Haurrer guciz cer eracasten derié?
- I. Hen verthuté ederrena dela, beré Aita Amén, ascaci eta gue-
hienan manu pian bicitcia.
- G. Eta Cer orano?
- I. Eliçala ardura joan behar diela; han beré Artçagner onsa be-
hatu, eta galthroer ihardexi.
- G. Noiz hori eguin diroyé?
- I. Catechimaren erraitian.
- G. Han behar direya eré galthatu?
- I. Bay, Extakitçenen ikhasteco.
- G. Hortic cer ginan da?
- I. Jesus-Christ beçala adinian eta çuhurcian bethi aitcinatu-
ren dira.
- G. Jesus-Christec haurçarotic etcian çuhurcê osso bat?
- I. Bay duda gabe, bena egunetic eguniala hora hanbatenaz aguer eraci du; haurrer eracasteco bethi agudotigo behar diela.
- G. Ama virginia nola bici cen?
- I. Jesus-Christ beçain eçabaki.

- G. Cer ari cen?
- I. Jesusen eguiter, eta harez erraiten çutiener gogoa emaiten cian.
- 37 G. Beraz Jesus-Christen etchecoen saintutarçuna certan çagoan?
- I. Leguiac manu eguin cerien ordietan eliçala çavilçan; Gincoa orotan cerbutchatcen; beré laner jarraikiten, eta eçaba bici ciren.
- G. Horietaric orotaric cer ikhasten dugu?
- I. Eguiazco saintutarçuna eztela, herox handitaco gaicen egutia, bena bai norberé eretcian verhutez beheratcia, eta bigabiaren emeki egartia.
- G. Bena cergatic Evangelistec hain guti erraiten derikié Jesus-Christez eta haren etcheco saintiez?
- I. Gouri eracasteco, aski dioyé: eta hain sarri ikhasten derikié, eztugula behar iarraiki gaiça soberari.
- G. Cer iakin behar dugu?
- I. Dakitçagunetaric goço hartcia, eta gagnelan extakitçagune-tan ichil egoitia.

38 11. Igantian

**BEDERATCU GARREN CAPITULIA
SEPTUAGESIMAREN IGANTECO**

- G. Tempôra saintu hontan berheciki ceri gogoa emaiten duçu?
- I. Eztirola orai erraiten cantore alaguerac, çoin baitira Allelu-ya. Gloria in excelsis. Te Deum, eta Coloré violeta eliçac hartcen diala.
- G. Cergatic horic?
- I. Dolu eta hasperen cegnharetan, bi arraçogatic.
- G. Coin da lehana?
- I. Egun hoyec uduri eraciten deriskié Adamen egunac, eta hora nola bici içan cen, hasten guira eliçan iracourcen.
- 39 G. Cer erran nahi duçu Adamen egunez?
- I. Doluzco eta Penitenciazcoac, nola baitira bekhatorec eta esterratiec merechi dutienac.
- G. Eliçac cer beraz eracasten dericu ororen dolu honçaz?
- I. Alaguerancia, sobera ian eta edatiac, carataiskeriac, eta besté solaçac utci behar dutugula.

G. Cergatic?

I. Haur hon elibatec beçala, goure Ama eliçareki nigar eguiteco; orhituric gouré Salvaçaliaren herio Passioniaz.

G. Bi garren arraçoa çoin da?

I. Goroçuma saintiaren onsa igaraitera adelatceco.

G. Cergatic beraz ihor egun hoyetan, besté ordiez beno guehiago, sobera jan edan, erhokeria eta gaiça devetatier senthatuki iarraigiten da?

I. Horic oro dira Deebriaren chotileciac, Eliçaren gogo sain-tien gal eraci nahiz.

G. Cer gaitçac orano eguité gaisto hoyetaric giten dira?

40 I. Barouraren hontarçunaren, eta Christiec goroçuman besté obra hon eguin ahal litrioyen ororen bidia hausten dié.

G. Eliçaren gogoari iarraigiteco, cer eguin behar da Ihauterian?

I. Lehenic joan Eliçala gogo honez Meça saintiaren ençutera: han egon luçaz ago, Jesus Jaunaren bihotcez lagunceco, bes-ten haboroëc ahazten dieno.

G. Eta cer orano?

I. Utci jokiac, apairu handiac, carataiskeriac, dançac, eta gag-nelaco gaiça devetatiac. Eta adiskidegoaz, edo ihés ecin eginez, hetaric çonbaitetan ihor helcen bada, beste ordiez beno çuhurrago eta emiago aguertu behar du.

G. Carataix lastercariac nor uduri dira?

I. Indioac, eta soldado Jesus Jauna bilaici cienag, çognec beguiac thapatu baitceritzen, eta hilceracoan hari eguin mes-peretchu hanitz.

41 12. Igantian

HAMAR GARREN CAPITULIA

Goroçumaco lehen Igantian Jesus-Christ eracouxi behar desertian: edo Ninivaco hiriaren baroura eta dolia. Joan. 1.

G. Goroçuma nontic da?

I. Apostoliec haur haxarretic manatu dié.

G. Cergatic semiaren bicitiaren bereberki ohoratceco, çoin barourtu baitcen desertian berroguei egunez.

G. Cergatic orano?

I. Gouré bekhatiez penitencia eguiteco barourez eta besté gaz-tiguiez.

G. Cergatic orano?

- 42 I. Gouré salvaçaliaren herio passioniaren hobeki ohoratceco, eta Bazco Bestetara adelatceco.
- G. Eliçac certara eroan nahi gutu Goroçumaren barouraz?
- I. Eguiazco barouriala, eta gaitcetaric guibcliala.
- G. Coin da haur?
- I. Bekhatiari ihés eguitia.
- G. Ceri orano?
- I. Jocu, tempôra galcé, eta solaz devetatier.
- G. Eliçaren gogoan goroçumaren onsa igaraiteco, cer beraz eguin behar da?
- I. Jan edanac, loa, eta solaçac hertu; hobeki Gincoaren othoitzceco.
- G. Christiéc nola igaraiteco dié goroçuma.
- I. Barour, othoitz, eta genté beharrer, beste ordiez beno guehiago honki eguiten; lagun saldoer ihessi; gouré oguenen eçagutciaz ahalketuric, çognec hil eraci baitié Jesus Jauna.
- G. Barourtceria çoin dira bortchatu?
- I. Hoguei eta bat ourthiac igaran dutienac oro, eguiten ahal badié.
- 43 G. Hel eztitakianac barourtceria, arras igaran ditakia mortifatu gabé?
- I. Ez: eta ahalaz sarthu behar dié Eliçaren gogoan, cerbait berér hertcen diela.
- G. Cergatic goroçuman Curutchia, Imaginac, eta althariac estalcen dira?
- I. Dolu eta Penitencia cegnharetan.
- G. Christiac beraz cer sendimentu ukhen behar du Goroçuman?
- I. Bihotz ourouiski, hasperen saintu, cinezco penitencia bat: baita Gincoaren hitçari behatu sinhesté osso bateki.
- G. Cer orano?
- I. Officio saintietara joan, eta hetan Eliçareki hasperen eguin ichilic.
- G. Eta cer orano?
- I. Batbedera adela onsa Cofessatceria ordu honez, egon gabé berant, eta Bazcoco lehietrano.

44 13. Igantian

HAMECA GARREN CAPITULIA.

PASSIONIAREN IGANTIAN, ERRAMU BESTACO

- G. Cer Besta dugu eliçan daigun Igantian?
- I. Erramu.
- G. Cergatic daigun Igantia deitcen dié erramu?
- I. Egun hortan eguiten den Processionia gatic çointan batbederac erramu adaisca bat eskian baitaduca.
- G. Processioné hori cergatic eguiten da?
- I. Orhitceco Jesus Jaunaren Jerusalemera ohorez sartciaz, beré herio Passioniaren sey aitcineko egunian.
- G. Gouré Salvaçaliaren hilceracoan ohoratcé honec cer cegnharatcen du?
- 45** I. Beré hilciaz Deebria, Mundia, eta Araguia goithuren çutiala, eta Paradussia idekiren cericula.
- G. Jesus Jaunari nor elkhi çayon aitciniala?
- I. Gente chehiac eta haurrac.
- G. Cergatic?
- I. Ceren arima emé eta chahien laidorioac maité baitutu.
- G. Nolaz Jerusalemeco handiac eta legué çaharreco guehienac etçaitçon elkhi bidiala.
- I. Hen urguilliac etcian merechi parté ukheitia Jesus Jaunaren ohoré egun hartan.
- G. Cer beraz eguin behar da hartara parté ukheiteco?
- I. Houra beçala emé içan, eta bihotça beheratu.
- G. Cergatic Jesus hara sarthu cen asto baten gagnen?
- I. Profecien eguiati hel eraciteco; eta gouri gal eraciteco gora içan nahiaren.

46 14. Igantian

HAMABI GARREN CAPITULIA

**ERRAMU IGANTIAN ERRAN BEHAR DA ASTE
SAINTUCO**

- G. Nola deitcen da daigun astia?
- I. Asté saintia, eta Penazcoz.

- G. Cergatic hala daritço?
- I. Hontan Jesus Jaunac gouré arrerostiaren misterio handia eguin, eta lan handiac egari dutialaco.
- G. Astizkenian cer heltu da?
- I. Egun hortan gouré salvaçalia hoguei eta hamar dineren Judas bere discipuliac judier saldu cerien.
- G. Ostegunian cer eguin içan cen?
- 47 I. Gouré Salvaçaliac Ulhuncian beré Apostolier hognac ukhuci ceritcen, eta beré Corpitz saintia Sacramentu içateco eman.
- G. Jesus jauna noiz judier eskietara eman çayen?
- I. Ostegun gayan Judas giten cela haren Corpitz saintiaren errecevitcetic, Olivetaco baratciala, ohorez eguiten den beçala, Jesusi potbat eguin cerion, honen cegnharatceco bereki eroan çutian soldadoer, amorecatic hora harturic es-teca leçen hala eguin cien beçala.
- G. Jesus-Christec gay hartañ cer soferitu cian?
- I. Gaizki eguilé bat beçala eroan cien Anna, eta Caïfaren aitciniala, çoin baitciren Apecen guehienac: Jondané Petiric hirouretan ukhatu cian etciala hora eçagutzen: haren Discipuliac ihessi joan ciren, eta gay orotan soldadoen mertchedian utciric, hoyéc beré ahalaz mesperetchatu cien, haren icen saintia arnegatu, hora chouflestatu, eta harez erri hanitz eguin.
- G. Ostiralian cer heltu cen?
- 48 I. Judiec goiztiritic acusatu cien Pilataren aitcinian, çoin baitcen Errumeco Emperadoriaren Gobernadoré Judeaco herrian. Pilatac hora igorri cian Herode gana: çognec beré Cortecoeki erho baten hartu baitcien: guero Herodac arregoriric Pilata gana, açotatu içateco soldadoec ecin borthizkiago odola issour eraci cerien açoté khaldiz.
- G. Açotatu cien ondoan, cer eguin cien?
- I. Soldadoec escarlatazco manto batez estali cien; burun gagnen eçari cerien elhorrizco khoroa bat, eta canavera bat es-kian; salutatzen ciela errigarri beçala, Comediaco Erregué baten anço. Bera orano sordeix Judiec Pilatari Jesus hilcera condemna eraci cerien, eta desditchatu honec hala eguin, hen gogara içateco.
- G. Jesus-Christ hala condemnatu ondoan, Judiec cer eguin cien?
- 49 I. Curutché sortha bat bizcarrian eçarri cerien, eta hala hora eroan Calvarioco mendiala, non hora picarraituric bi ohognen artian itçatu baitcien Curutché hartañ gagnen.

- G. Hilcé laidо garri honec hen errabieria assé cien?
 I. Ez: besté gaizki hanitz eré eguin cerien: Jesusec erranic, Egarri cela; ozpin edateco eskentu cerien.
- G. Jesus-Christen egarriac cer cegnharatcen cian?
 I. Gouré Salvatceco su handi baciala.
- G. Eta haren nahiari jarraikiten ezkirenian?
 I. Haren exay eta erhailec beçala ozpin emaiten deriogu.
- G. Jesus-Christen hilceracoan cer heltu cen?
 I. Ekhia arras gordatu; lurra bortizki ikeratatu, arrocac erdiratu; eta hilen hobiac ideki ciren.
- G. Eta cer orano?
 I. Hil hanitz piztu eta genter aguertu; Eliçaco eré veloa goihetic çola lano çaticatu.
- 50 G. Cer cen Eliçaco velo hora?
 I. Estalgui Cherubinez pinthatu bat, çognec Eretcé saintiena berhezten baitcian Eliçaren gagnelatic.
- G. Veloaren hausté harc cer cegnharatcen cian?
 I. Celia, çoin baita eguiazco lekhu saintia, çointan baitago Gincoa beré handitarçunareki, ideki çaicula Jesus Christen hilciaz.
- G. Cergatic Gincoac miraculu hoyec oro eguin dutu beré semiareñ hil orenian?
 I. Amorecatic guciај jakilé içan litian Judien contré.
 G. Eça gouré contré eré jakilé içateco?
 I. Bay Jesusen hilcetic goço idokiten ezpadugu.
- G. Hontaric goço hartu cienc cer eguin cien?
 I. Beré boulharrer colpu emaitez çoatçan, eta oihuz! haur eguiaz Gincoaren semia cen.
- G. Noiz guihaurtan sendimentu hoyec piztu behar dutugu?
 51 I. Curutchiaren adoratcera gitian.
 G. Cergatic?
 I. Ceren ordian bat bederac eçagutcen baitu Gincoaren eguiazco semé bakhoitça dela, curutchian itçatu içan dena.
- G. Ezta beraz Curutchiaren materia adoratcen?
 I. Gincoari eztaxala.
 G. Nori doa Adoracioné hori?
 I. Jesus Christ Ginco biciaren semiari.
 G. Hori nola harten duçu?
 I. Jondané Paulec dioan beçala, Jesus-Christen curutchian eçarten diala beré gloria; erran nahi du hora Jesus-Christ crucificatian eçarten diala.
- G. Gouré Salvaçalia hil cenian, cer eguin cerien?
 I. Soldado batec iskerreco saihexa igaran cerion lança batez, eta hain sarri odol eta hour hantic elkhiten ikhoussi cerien.

- G. Jesus Christen saiheretic elkhia diren odol eta hori hayec cer cengharatzen dié?
- 52 I. Batheyia: çointan haren Eliça beré Salvaçaliaren odolian ukhuci baita, eta hori saintu batetan.
- G. Jesus-Christ nola ehortzi cen?
- I. Hil cen eguneko ulhuncian, Josef Arimatia aiturunsemiac, eta Nicodeme Farisien Gincoaren beldurti cenac curutchetic eraixiric, mihissé eder batez estaliric ohoratuki ehortzi cien, eta hora urrin hon batcieki, harriz egun hobi berri batetan eçari.
- G. Neskenegun saintian cer eguiten da Eliçan?
- I. Bazcoco Chirioaren Ceremonia saintia; eta Batheyuco houren benedictionia; çoin Ceremoniac oro mysterioz bethé baitira.
- G. Besté orduz noiz eguiten ciren?
- I. Neskenegun gayan, çointan Jesus-Christ hobitic elkhia baitzen.
- G. Bazcoco Chirioac cer cengharatzen du?
- I. Jesus-Christ arrapiztiac mundiala ekhartzen dutian arguia eta boztarioa.
- 53 G. Cergatic batheyuco hora benedicatzen da?
- I. Eracousteco çonbat verthutez bethé den.
- G. Asté honen onsa igaraitako, cer egun behar dugu.
- I. 1. Hobeki barourtu; 2. bereberago bici; 3. Cofessa ahalic sarriena; 4. Joan Tenebroac deitzen diren hirour Egunetaco officio saintietara; 5. Ostiralé saintian Curutchiaren adoratzen, eta gouré Salvaçaliaren çauriac sendi, cerbait soferitzen dugula; 6. gaiça hoyen ororen eguiteco Eliçaren goigoan, bethi guihaurtan igaran Passioniaren mysterioac hirour egun hoyetan, eta otoitz ondoan, dakianac iracourt cerbait sainturic.

54 15. Igantian

HAMIROUR GARREN CAPITULIA

Bazco besta saintietako

- G. Egun çoin besta dugu Eliçan?
- I. Besta orotako handiena, çoin deitzen baitugu Bazco, eta çognec hanbat merechi baitu, non bihar eta etci orano be-

- guiratcen baita, eta bestorduz çortci egun iraiten beitcian.
- G. Eliçac cer mysterio ohoratcen du egun saintu hayetan?
- I. Jesus-Christ gouré Jaunaren hiletaric pitcia.
- G. Cer erran nahi du hiletaric Pitciac?
- 55 I. Haren arima eta corpitçaren berriz algarganatcia, çoin herioac berheci baitçutian.
- G. Norc ikhoussi du Jesus-Christ arrapizturic?
- I. Emazté saintiec, beré Apostoliec eta bostetan ehun beno haboro hartan sinhesté hartu cienec.
- G. Nola borogatu cerien beré arrapitcia?
- I. Heki jan cian, eta elhestatu cen beré corpitça honki eraci, eta hen eskiac beré çaurietan eçar eraci ceritcen.
- G. Alleluya hitz honec cer erran nahi du, çoin hain ardura egun saintu hontan erraiten baita, eta ondoko Gincoaren cerbutchietan?
- I. Dio Gincoaren direla laidorioac, eta hora cen alagueranciazco oihu bat Gincoaren Populiaren artian.
- G. Cergatic beraz hain ardura arrerraiten da?
- I. Boztario cengharetan.
- G. Eta cergatic tempôra hontan Gincoa çuti othoitcen da?
- 56 I. Alaguerancia eré cegnharetan, eta Jesus-Christ hiletaric, çutitu dela.
- G. Cergatic Besta haur, eta Bazcoco tempôra gucia hanbat alaqueranciareki ohoratcen dira?
- I. Ceren Jesus-Christ hontan agueri baita goithuric herioa eta bekhatia.
- G. Cergatic herioa?
- I. Ceren bici baita, eta guehiago ezpaitaité hil.
- G. Cergatic bekhatia?
- I. Ceren garhaitcen baitu herioa çoin bekhatiac gin eraci baitcian.
- G. Bazco etcena Judío Populiaren besta bat?
- G. Bay; hora cen besta bat, çointan Gincoaren Populiaren Egiptaric elkhitia eta solthura ohoratcen baitcien.
- G. Bazco hora certan uduri da gouria?
- I. Ceren Jesus-Christec arrapizturic beguiratcen baicatu hilcé bethierecotic eta Ifernutic.
- G. Bazco hitz honec cer erran nahi du?
- 57 I. Dio Igaraitia
- G. Cer cegnharatcen dericu Igaraité horrec?
- I. Hala nola Jesus-Christ heriotic bicia la igaran baita, berhala bekhatutic graciala igaren behar dugula.
- G. Dioçunian, Jesus-Christ arrapizturic eztela hilcen guehiago, cer hortic idoki nahi duçu?

- I. Eztugula haboro bekhaturic eguin behar.
- G. Nola beraz ihorc eçaguturen du Bazco besta hontan eguiazki arrapiztu denez Jesus-Christeki?
- I. Hastio eta uzten badutu ez solamens bekhatiac oro, bena bay orano hetara erortokiac, eta lagun gaistoac.
- G. Nola orano?
- I. Celuko gaicer jarraikiten bada, eta ezdeüsen edukiten aldépecoac oro, handikeriac, sobera aguertu nahiak, plazerac; ezkenecoz Gincoaren gaicetan goço hartcen badu.
- G. Gincoaren gaicetan goço hartcia cer da?
- 58 I. Devocionairen, othoitciaren, Parropiaco cerbutchu saintiarren, Predikiaren, eta Catechimaren maithatcia.
- G. Bazcoren tempôra gucia cer sendimentutan igaran behar dugu?
- I. Alaguerancia espiritual batetan.
- G. Nola?
- I. Goço hartuz bekhatien parcamentian, eta ugurukiten duggala, Jesus-Christ beçala arrapizturen guirela.
- G. Jesus-Christ beçala arrapitciac cer erran nahi du?
- I. Haren glorian bicitcia arima eta corpitician, parté hartcen badugu haren penetan.

59 16. Igantian

HAMALAUR GARREN CAPITULIA

Saint Marken; Eta Letherignen aitcineko Igantetan orhit, Erre-gué Davitec othoitz handiac eguin çutiala Populiarentaço, ucu-riiac hil eraciten çutianian; Gincoari galthoz hora bera gal eraci leçan, 2. Reg. 24. v. 14. 15. & c. Eta Davitec orano hognéz Populu guciareki ihés eguin ciala Absalonis, eta Gincoaren açotiaaren pian jarri. Ibid. 14 v. 14 15.

1. ARTICULIA.

- G. Cer eguiten da Eliçan Saint Markez eta Letherignen hirour egunetan?
- 60 I. Processioné, eta Othoitz handiac eguiten dira, çoin deitcen baitira Letherignac.
- G. Cer erran nahi du Letherigna hitz honec?
- I. Dio Othoitciac, eta gomendiac.

- G. Beraz Letherigna hoyec cer dira?
- I. Oroc Gincoari eguiten deritcen othoitciac Populiari beguiratceco haren khechueritic, eta honi galthatceco, benedica ditçan Lurreco frutu aitcinatcen hassi direnac.
- G. Cergatic bi gaiça horic algarganatcen dutuçu?
- I. Ceren gossia, agorreria, eta hilcia Gentetan eta aberetan algarri ardura jarraikiten direnac, baitira Gincoaren açotiac.
- G. Amaticatu behar dugua Gincoaren khechueria?
- I. Bay, sçandaloac emendatcen direnaz gueroz: Norc beré eretcian gaizki sobera eguiten; eta Gincoaren maniac ostico petan erabilten.
- G. Processionec nola ematcen dié Gincoaren khechueria?
- 61 I. Oguenen dolia, eta Penitencia aguer eracitenago dutielacoz, kharrica orotara eta campoetara ihour doela, oihu eguitera beçala, Eguicié Penitencia, eta Gincoari parcamentu esca çakitçoyé.
- G. Cergatic goatça Elicetaric Elicetara?
- I. Orotan artecari saintiac ediren nahiz.
- G. Cer eguiten da Letherignetan?
- I. Gincoaren ematceco cerbutchia ahal dakigun gucia.

2. ARTICULIA

LETERIGNAC CER DIREN

- G. Cergatic hasten dira Letherignac?
- 62 I. Oroc algarreki galthatcen diela Ginco Aita, Semé, eta Espiritu saintiaren misericordia: hori dioyé hain ardura erraiten diren hitz hoyec. Kirie eleison, Christe eleison. Kirie eleison: Grekezj ô Jauna eguiguçu Mertchedé! ô Christ eguiguçû Mertchedé! ô Jauna eguiguçu Mertchedé!
- G. Guero cer erraiten da?
- I. Bereber Jesus Christi hersatcen guira, erançun eraci behar gutianari beçala.
- G. Cer diotsogu?
- I. Christe audi nos, Christe exaudi nos. Dio, Christ beha çakizcu; Christ emaguçu.
- G. Eta guero?
- I. Deitcen dutugu Berheciki Gincoatan diren hirour Personac, Aita, Semia, eta Espiritu Saintia, çoin baita Ginco bakoitz bat: Diotsogula, Miserere nobis. Eguiguçu Mertchedé.

- G. Letherignen aitcinatcian cer diogu?
- 63 I. Ama virginaren, Ainguru, Patriarca, Profeta, Apostolu, Martir, Doctor, Apezcupu, Confessor, Apez, Diacrê, Fraidê, Ermita, Virgina, Alhargun dohaxu, azkenecoz saintu eta santa guien othoitcer gomendatcen guira.
- G. Cergatic?
- I. Gincoaren adiskidé, eta Paradussian diren ororen, goureki othoitcetan sar eraciteco.
- G. Cer erraiten deriegu?
- I. Ora pro nobis; Othoi egucie gouretaco.
- G. Guero cer diogu?
- I. Arrutçulcen guira Jesus Christ Jauna gana, çoin othoitcen baitugu, gouré Salvatceco egui dutianez oroz, beguira guitcan gaitz guciataric, guciz bekhatutic.
- G. Cer diogu Jesus-Christi.
- I. Libera nos Domine. Jauna beguira guitçatçu.
- G. Eta guero?
- I. Eliçaco Javiac oro, eta Gincoaren Populu gucia bakian, eta ditcha honian bici ditian othoitcen dugu.
- G. Populiak cer ihardesten du?
- 64 I. O Gincoa ençun guitçatçu, othoyez gautçu, Te rogamus audi nos.
- G. Cer dioye, azkencian hirouretan Agnus Dei erraiten dutuguenec?
- I. Hoyez othoitcen dugu Jesus-Christ Gincoaren achouri mundiarene bekhatien chahaçalen, behar dutugunac eman ditçagun, eta oguenac parca.
- G. Othoitz haur nola urhencen da?
- I. Haxarrian beçala, Gincoari misericordia galdeguitez.
- G. Horic direya oro?
- I. Ez. Apeçac Populu guciaren icenian hitça hartcen du, eta erraiten Pater noster: goure Aita &c.
- G. Cer dio guero?
- I. Gincoaren othoitceco urgatz guitçan, erranic Psalmu bat: Apeçac berriz eliçaco behar ororen gomendiac eguiten deritço: eta Populiak ihardesten derio.
- G. Eta azkenecoz?
- 65 I. Apeçac Jesus-Christen icenian, Gincoari beré Populu guciaren galthroac eskencen deritço hanitz othoitcez, çoin urhenen baitutu gomendatcen deritçola biciac eta hilac.

3. Igantian

LETHERIGNEN VIGILIAZ, ETA GAGNELATICOEZ.

- G. Cergatic eztugu jaten araguiric hirour letherignetaco egunez?
- I. Othoitz ari guirela, gouré corpitcen hezteco.
- G. Cergatic eztutugu ossoki barourtzen?
- I. Etcelacoz nozpait barour eguiten Bazco tempôra, alague-ranciazco tempôra celacoz.
- G. Eliçac cer eracasten dericu hain handi diren othoitz hoyez?
- I. Eguiazco othoitciaren espiritua.
- G. Othoitz hoyéc aspaldicoac direya?
- I. Bay çahar dira, eta Populia saldoz hetan çavilan, lana utciriç hetara helceco.
- 66 G. Cergatic beraz oraico Christiec hain herabé dié ibiltera Letherigna eta Processioné penazco hoyetara?
- I. Devocionia arras hoztu çayelacoz.
- G. Cergatic letherignac eguiten dira Salvatoré bestaren aitcine-chian?
- I. Jesus-Christ Celiatat igaiten dela, uduri da Eliçac beré behar guiac gomendatu nahi deritçola, ceren genten artecaria baita Gincoa ganaco.

17. Igantian

HAMABOST GARREN CAPITULIA

Salvatorez

- G. Cer besta dugu eguna?
- I. Salvatoré besta diot Jesus-Christ gouré Jauna Celiatat igan den eguna.
- 67 G. Jesus-Christ etcena Celian?
- I. Bay han cen Ginco Beçala Aita bethierecoareki, bena Celia-lat igan da guiçon beçala corpitz eta arimatan.
- G. Nola?
- I. Beraren indarraz.
- G. Cer sinhesten duçu dela Celia?
- I. Dohaxien egongua.

- G. Cergatic Jesus-Christ hara igan da?
- I. Hasteco goçatcen beré Erresumaren.
- G. Cergatic orano?
- I. Gouré lekhiaren han adelatceco, eta gouré Avocatu içateco.
- G. Jesus-Christ noiz igan da celialat?
- I. Arrapitzu cenicet berroguei egunen ondoan.
- G. Cergatic berroguei egun hourac uguruki çutian?
- I. Hanitz aldiz beré discipulier aguertuz segurtatu nahi baitçutian, eguiazki arrapitzu cela.
- 68** G. Uxartetan non cen Jesus?
- I. Ezta sori horren galthatcia, ceren Gincoac ezpaitericu ikhassi nahi ukhen.
- G. Celialat igan cen egunian cer eguin cian?
- I. Beré discipulieki jan; luçaz heki minçatu cen hourac Bethanalat eroan çutian, eta Olivetaco mendiala, nontic Celialat igan baitcen, hourac eskiac goraturic benedicatu çutianian.
- G. Cer heltu cen ordian?
- I. Hourac benedicatzen çutiala, emeki igan cen so çauscola beré discipuliac, odehy batec hen beguier estal artio.
- G. Eta hayec cer ikuoussi cien?
- I. Orano gora so çaudiala, bi Ainguru chouriz estaliric aguertu çaitcen.
- G. Badakizia cer erran cerien Ainguru hayec?
- I. Etcela deüsi guehiago soguiteco; eta Jesus egun batez aguerriiz Celutic ginen cela, harat igan cen beçala.
- 69** G. Guero Discipuliec cer eguin cien?
- I. Jesus-Christec manatu cerien beçala algarreki joan ciren Maria haren ama saintareki; eta ichil emeki uguruki cien hitz emen cerien Espiritu saintia.
- G. Jesus-Christ nola dago Celian?
- I. Ohoré eta indar handieki, Ginco beré aitaren escugneco al-dian.
- G. Horrec cer erran nahi du?
- I. Oro eguin ahal ditiroala Celian, eta lurrian.
- G. Misterio honec cer eraguin behar dericu?
- I. Gouré bihotçac Celialat gora eraci; handitarçunic ez nahi ukhen, Jesus-Christec beria aguer eraci diroguno.

70 18. Igantian

HAMASEI GARREN CAPITULIA

Erraiteco Salvatore ondoko igantian, baita Pentecostez eta honen bestetan.

1. ARTICULIA

Espiritu Saintiaren jaixtiaz

- G. Eliça daigun Igantian hanbat ohoratcen dian Besta çoin da?
 - I. Pentecosté, çoin baita Espiritu saintia jaixi cen eguna.
- 71 G. Pentecostê hitz honec cer erran nahi du?
 - I. Dio Bazcoric berroguei eta hamar garren eguna, çoin Besta Judiec eré hanitz ohoratcen baitcien.
 - G. Espiritu saintia beraz noiz jaixi cen?
 - I. Bazcoric berroguei eta hamar garren egunian, Igantê batez goiçanco bederatçu orenen ungurunian.
 - G. Jaixtê hora nola eguin cen?
 - I. Herox handi Celutic giten cenbat ençun cien bat batetan, aicê borthitz batena beçala, çognec bethê baitcian, discipuliac bilduric çaudian, etchê gucia.
 - G. Cer heltu cen guero
 - I. Suzco mihi elibat beçala aguertcen ikhoussi çutien, çoin berheci baitciren, eta hetaric bat bederatan gagnen baratu.
 - G. Judiec cer eguin cien?
 - I. Judiec çoin munduco eretcê orotaric bilduric baitçaudian Pentecosteren ohoratceco, Celutic giten ençun cien açanciala laster eguin cien
 - G. Cer ediren cien?
- 72 I. Apostoliac ediren çutien, çognec Gincoaren miragarriac ohoratcen baitçutien, eta bat bederac beré anço minço cirela ençuten çutian.
 - G. Apostolier beraz cer heltu çayen?
 - I. Celuco su haren aguertciari bihotçac piztu çaitcen eta garrez bethê, orotan erraiteco Jesus-Christ arrapiztu cela.
 - G. Aitcinetic eguin cian herox handi harc cer cegnharatcen cian?
 - I. Gouré arimac Gincoa maithatu beno lehen, harentaco dian Larderia saintia cegnharatcen cian.

- G. Suzco mihi hayec cer erran nahi cien?
- I. Arguiz eta garrez bethè ciren Apostoliens predikiac.
- G. Espiritu saintiac hayetçaz cer cioan aitcinetic?
- I. Héc mundu gucia arguituren eta gorthuren ciela; ceren bat bederac beré anço minçatcen ençuten baitçutian Apostoliac.
- G. Eta hac cer erran nahi cian?
- I. Oren minçatciala Jesus-Christen Evangelioa predicatu içanen cela.

73

2. ARTICULIA

Pentecoste, hitcaz, eta berroguey eta hamar egun garren honec cer dioan

- G. Judiec bacienna beré Pentecostia?
- I. Bay: baciela lehen erran dugu.
- G. Cer cen hora?
- I. Beré Bazcoaren berroguei eta hamar garren eguna, çoin handiki beré artian ohoratzen baitcien.
- G. Cer heltu cen hen Bazcoaren berroguei eta hamar garren egunian, Noiz Egyptaco Erresumatic elkhia baitciren?
- I. Egun harten legué izkiribatia eman çayen Sinaï menden gagnen su eta chilimisten artian.
- 74 G. Haur certan uduri da christien Pentecostia?
- I. Ceren legué berria egun hontan orori iakin eraci da, Gingoac aguer eraci dian su berri baten erdian.
- G. Gouri aguertzen çaicun su berriaren artian, cer da besteric Sinaïko suyan etcenic?
- I. Batac emaiten cian loxeria; eta bestiac ematzen gutu, Gingoac eré maitha eraciten.
- G. Judioac cer ari ciren Pentecostez?
- I. Beré Uztaco Primiciataric eguiten cutien oguiac Gingoari oherescatzen ceritzen.
- G. Cer deitzen dutucié Primiciac?
- I. Lehen frutiac.
- G. Eta horrec cer uduri du gouré Pentecostereki?
- I. Ceren Pentecostez, Espiritu saintiaren jaixtiaz, eta Jondané Petiriren peredicitiaz gouré Eliça sortzen berri cenaren Primiciac Gingoari oherescatu baitçaitçon.
- G. Nola hori?
- 75 I. Hirour mila genteren Christiticiaz, çogni hanitz besteric jarrak baitciren.

3. ARTICULIA

Eliçaren haxarrian Espiritu Saintiac egun dutian miragarriez

- G. Eliçaren haxarreco Christiac nola bici ciren?
- I. Ecin saintukiago; eta oroc etcien ber bihotz eta arima bat baicik; etcien eré beré artian deus berheciric.
- G. Nola?
- I. Beré honac Salcen çutien, eta hen valioa Apostolien eskieta-ra ekhaten, çoin hoyec bat bederari beharraren arau emai-ten baitceritzen.
- G. Lehen Christiéc çoin verthuté orano aguer eraciten cien?
- 76 I. Jesus Christen icenaren amorecatic gaitz hanitchen egartian alaguera iatia.
- G. Gincoa nola adoratcen eta cerbutchatcen cien?
- I. Egun oroz bilcen ciren algarreki othoitceco, Apostolien pre-dikier behatceco, eta Eucaristia sacraziaren hartceco.
- G. Orori beraz genté perestu agueri ciren?
- I. Bay, bethi Eliçan algarreki Gincoaren othoitzen ikhousten çutien, eta guciec maitê.
- G. Eta cer ikhousten cien miragarrienic?
- I. Apostolietan heltu cen berritarçuna.
- G. Cer cen hora?
- I. Hain sortha eta jakitê gabê ciren guiçon elibatec hain goraki Gincoaren barnia, eta escritura saintiac eraçagut litcen.
- G. Cer Berrikeria orano heltu cen Apostolietan?
- 77 I. Beldurteiac bihotztoitu ciren, jakilé azcar içateco Jesus-Christ arrapitzu cela.
- G. Eta beré erranac nola egartcen çutien?
- I. Populu guciaren aitcinian eguiten çutien miraculiez.
- G. Nola orano?
- I. Beré buriac hilcera eta pena orotara eskencen çutien, goraki egarteko Jesus-Christ arrapitzuric ikhoussi, ençun, eta hon-ki ciela.
- G. Norc eman cerien indar hora?
- I. Espiritu saintiac hen bihotcetan Gincoaren maitetarçuna pizturic.

4. ARTICULIA

Espiritu saintiaren bethi eliçari jarraikitiaz

- G. Espiritu saintiac Eliça eztia urgatci beré haxarrian baicik?
- I. Ondoco cecuria orotan bardin egarten du.
- G. Certan guziz Espiritu saintiaren lana agueri da Eliçan?
- I. Eman derion indarrian, deüsec hora garhait eztiroan.
- G. Eliçac certan indar hori eracouxi du?
- I. Hirour ehun ourthez emeki beré gaizki egulen egartian.
- G. Eliçaren indarra ezteya bestê borogutan agueri?
- 79** I. Bay, haur gorazki agueri da hanbat heresiaren goitcian.
- G. Cer deitcen dutuçu heresiac?
- I. Jakitê gaistoac, çointan ihor Gincoaz erranari beno lehen, jarraikiten baita beré urupenari, haur Eliçac condemnaturic eré.
- G. Espiritu saintiac Eliça nola urgazten du orano?
- I. Chahuki hitz eguien, eta saintutarçunaren espiritiaren har- tan bethi irain eraciz hanbat gaizki eguleren artian.
- G. Gaizki bici direnen gaztigatceco, cer eguin behar da?
- I. Ahalaz onsa bici Eliçaren haxarrecoac beçala; eméki egar gaitçac; ber bihotça eta arima ukhen oroc; iraiciz gouré arte- tic bilhaca eta exaigoa guiac.
- G. Eliçac bethi iragnen dia?
- I. Bay: eta Jesus Christen hitçaren arau, eztie hora goithuren Ifernuco borthec.
- G. Cer dira Ifernuco borthac?
- 80** I. Iferniaren indarra; eta honec dio Tiran gaistoen borthitzarçunec ez heresiec, ez eré itchouski bici direnec, çonbait be- reberrec, ez eta Eliçaco cerbutcharieci, eztiala haur jagoitic eragotciren.
- G. Horiegatic orogatic Eliça bethi eguiati eta sainta içanen deya?
- I. Bay cinez.
- G. Nola bethi eguiati?
- I. Ceren Gincoac erran derizcun eguiac bethi eracaxiren baite- riscu.
- G. Nola bethi sainta?
- I. Ceren beré hitz saintiez bethi sorthuren baitutu saintiac ba- ttarçun dianian.
- G. Norc eguiten du miraculu hori?
- I. Haur pizten dian Espiritu saintiac.

5. ARTICULIA

Fediaren eracouste bat Espiritu saintiaren eretcian, eta Eliçan bethi bici beharra.

- G. Espiritu saintiaz eta Eliçaz gagnê hontan erran dutuçunac sinhesten dutucia cinez?
- I. Bay, bihotz ossoz sinhesten dut Espiritu saintian; Eliça santa Catolica; eta saintien parteliant içatia.
- G. Espiritu saintia Ginco deya?
- I. Bay, Aitareki eta semiareki, Espiritu saintia ber Ginco bat da.
- G. Norc igorri du egun?
- I. Aitac, eta semiac.
- G. Cergatic dioçu Aita eta semiac haur igorri diela?
- I. Ceren bietaric giten baita.
- G. Cergatic Espiritu saintiaren landan, eşarten duçu Elica?
- 82 I. Eracousteco, Eliçaren ahala, saintutarçuna, eta indar guciac giten direla Espiritu saintia ganic.
- G. Apostolietan nozpait beçala, Espiritu saintia eguiazco arima honetan dagoa?
- I. Bay, hora dago genté perestietan, hoyec oro dira Espiritu saintiaren egonguia.
- G. Badagoa erê espiritu saintia hen corpitcetan?
- I. Bay.
- G. Hoyéc cer çor derié?
- I. Ez theyutcia Gincoaren egonguiaren.
- G. Gincoaren egonguia hori, çoin baikira guihaur, nola theyutcen da?
- I. Bekhatiaz.
- G. Çoin bekhatuz guehiago?
- I. Araguiaren likhisduraz.
- G. Cergatic?
- I. Arima eta corpitça algarreki theyutcen dutialacoz.

19. Igantian

HAMACAZPI GARREN CAPITULIA

Trinitatiaren bestaco

- G. Egun çoin besta ohoratcen dugu?
 I. Trinitate saintiarena.
 G. Cer da Trinitaté saintia?
 I. Ginco bakhoitz bat hirour bereber diren Personetan, Aita, Semia, eta Espiritu saintia.
 G. Nola ohora dirogu Trinitaté saintia?
 I. Maitetarçunez bat eguiten guirela algarreki, Aita, semia, eta Espiritu saintia içatez bat diren beçala.

Catechima honi emenda eçaçu Trinitatiaren misterioaz errana lehen Partian, bi garren capitulian.

20. Igantian

HAMAÇORTCI GARREN CAPITULIA

*Besta berriz Jesus
Jaunaren corpitz saintiaren ohoretan*

Heben orhit, nola David erreguiac Apeceki, leviteki, eta Populu guciareki ohoré handitan, Gincoaren Arkha eroaiten cian Obededomen etchera; guero berhala hantic Sioneco mendi Saintiala, amorecatic hora egon ladin David berac eguin cerion Tabernaclian. 2. Reg. c. 6. Paralipo. c. 13.

- G. Daigun ostegunian çoin besta ohoratcen dugu?
 85 I. Althareco sacramentu saintiarena.
 G. Cergatic Eliçac Processioné hain ohoratu bat manatu du egun hortan?
 I. Bi arraçou guehien egatic.
 G. Coin da lehena?
 I. Jesus gouré Jaunari eskerren emaiteco, ceren apairu Gincoaz eguin bat, eta hain sacrificio saintu bat bethico eman baitericu.
 G. Coin da bi garrena?
 I. Ohoratceco Jesus-Christec beré Eliçari eman derion indar handiaren, Sacramantu saintu honen exayen goitceco.

- G. Egun hortaco Processionian nola ediren behar da?
